


uztarria

AZPEITIKO HERRI ALDIZKARIA

Danborradako
partaideak
ados araudi
berriarekin (3-5)



Hilabetekaria • 2003ko urtarrila • V. urtea • 36. zenbakia • www.uztarria.com



TABERNAN BERTSOTAN



Kalean bertso giroa izan da berriro Bertso Parrandari esker (22-25)



Ondo pasatu festak!



**SUKALDEKO ALTZARIAK
BAINUGELAK
HORMAN SARTUTAKO ARMAIRUAK**

PEREZ ARREGI, 9 Tfnoa. eta Faxa: 943 15 05 10

mugi
kirolak



Ez egon geldirik

San Sebastian bezperako helduen danborradak araudi berria izango du, eta talde berriek parte hartzeko aukera bermatu da

DANBORRADA ARAUTUA, HANDITUA

Ingurumen
foroak
bigarren
urteurrenean
lanean (12)

Inazio Arregi.
104 kiloko
burniarekin
Urko mendira
(18)



Xoxoteko
aterbea
urtarrilean
zabalduko da
(31)



Klik.
Bezperako
danbor hotsa
(36-38)

uztarrria



Leku falta Parroki aurrean du danborradak. / AZPEITIKO JAIAK

Nerea Uranga

Helduen danborradak talde bat gehiago izango du aurten, Julian Barrenetxea Abesbatza. Denera, 18 talde. Araudi bat ere izango du, orain arte ez bezala, Udalak eta helduen danborradako batzordeak erabakita.

Javier Beobide (Udaleko Festa batzordeburua)



“Araudiaren helburua liskarrik ez sortzea da”

Jabier Beobidek, Azpeitiko Udaleko Festa batzordeburuak, bi konpromiso hartu zituen iaz talde berriekin eta helduen danborradako batzordearekin, San Sebastian bezperako danborradan talde berri batek, Julian Barrenetxea Abesbatzak, parte hartu nahi zuela-eta sortutako liskarren ondorioz. Aurten, San Sebastian bezperako helduen danborradan parte hartu nahi zuten talde berrientzat deialdi ireki bat egingo zela eta araudi bat osatu eta onartuko zela hitz eman zuen. Araudia eginda dago, udaleko Festa Batzordearen onespena du, baita helduen danborradako batzordearena ere, eta Gabonen aurretik udalbatzan onartzekoa zen. “Helduen danborradako araudi bat egitearen helburua da iaz sortu zen bezalako liskarrik ez sortzea”, dio Beobidek. Halaxe, bada, Jabier Beobidek araudiaren zirriborro bat egin ▶▶

» zuen, eta danborradako batzordean eztabaidatu zen. "Danborradako 10-11 elkarte-tako ordezkariekin lau batzar egin ditut, hauen proposamenak jaso ditut eta araudi berriak gehiengoaren onespena jaso du. Araudiaren arabera, udala da danborradaren arduradun nagusia, baina udalak erabakiak hartu behar baditu ere, danborradako elkarteen batzordearekin adostasun batera heldu beharko luke", dio araudiaren baitan. "Pozik" dago Jabier Beobide, aurtent helduen danborradaren inguruan eman diren pausoeekin, eta umeen danborradarako ere araudi bat egiteko pausok ematen hasi nahi du orain, umeek ere ez baitute araudirik.

Manuel Garcia 'Mane'

(Sanjuandegi taldeko zuzendaria)



"Arautegiak ez ditut gustuko, baina onerako bada ondo"

1992an atera zen, aurrenekoz, Sanjuandegi taldea San Sebastian bezperako danborradan. Aurtent 11 urte beteko ditu, be-

araudia

Berrientzat aukera

● **ANTOLATZAILEA.** Azpeitiko Udala izango da helduen danborradako antolatzaile bakarra. Beraz, udala izango da danborradan gertatzen denaren arduradun. Baina danborradako batzordea jakinaren gainean izango du udalak beti.

● **PARTE HARTZEKO AUKERA.** Bost urtean behin helduen danborradan parte hartu nahi duten talde berrientzat izen-emateko aukera zabalduko da.

● **TALDEAK.** Talde berriek 40 danborzale izan beharko dituzte gutxienez, eta 56 gehienez.

● **ZIGORRAK.** Zigorrak izango dira: janzkera ez errespetatzeagatik; onartutako musika doinuak jo beharrean beste batzuk jotzeagatik; edota oniritzirik gabe danborradan talde berri batek irteteagatik.


raz. Manuel Garcia *Mane*-k ere 11 urte beteko ditu taldea zuzentzen. Manek gus-tuko ditu benetan Sansebastianak: "Jai politenak dira. Txiki-txikitatik, danborrada entzutearekin batera, emozionatu egiten naiz. Benetan serio hartzen dut danborrada". Danborradako batzordeko azken bileran ez zela izan dio Manek, eta arautegiaren berri egunkarian irakurri eta gero izan zuela. Baina arautegiak ez ditu gustuko: "Niri arautegiak ez zaizkit gustatzen, baina, denen onerako baldin bada, ondo dago. Dena ondo irtetea da politena".

Jose Ignacio Agirre (Lagun Onak M.B. taldearen danborradako zuzendaria)



"Araudiarekin denek parte hartzeko aukera izango dute"

Jose Ignacio Arregik 28 urte beteko ditu aurtent Lagun Onak Mendi Bazkunako danborrada taldean zuzendari; mendizaleen taldeak danborradako helduen taldea bera sortu zuenetik da zuzendari. Danborradako elkarteen batzordean ez du zuze-



Aurtent talde bat gehiago, Julian Barrenetxea Abesbatza, izango da, 18 talde, San Sebastian bezperako helduen danborradan. / IÑAKI URANGA

nean parte hartzen, mendizaleen elkarte-koak baitute ordezkaria batzordean. Baina Jose Ignacioren ustez, onartu berri den danborradako araudi berriak "denek parte hartzeko aukera" emango du. "Guk gure garaian danborradan parte hartzeko aukera izan genuen bezalaxe, orain talde berriek ere parte hartzeko aukera izango dute. Dena dela, parte-hartzea zabaltzeak, aurrera begira, danborradaren aldaketa ekarriko du, leku arazoa baitago". Juan Ignaciorentzat, Sansebastianak jai "one-nak" dira, jaietan zuzenean parte hartzen duelako.

Joxe Carapeto (Irrintzi Elkarte-ko zuzendaria)



"Jendeari irteteko aukera ematea ondo iruditzen zait"

1975etik ateratzen da Joxe Carapeto Irrintzi Elkartearen danborradako taldean, zuzendari. Araudi berriaren berri egunkarian irakurrita izan du, ez baita izan danborradako batzordearen azken batzarretan. Helduen danborradan araudi bat jartzea "ondo" ikusten du. "Jendeari irteteko aukera emateko araudi bat jartzea egokia dela iruditzen zait. Gero, aurrera begira, beste kontu batzuei irtenbidea emateko balioko badu, ondo dago. Jendeari danborradan irteteko aukera eman behar zaio". San Sebastian jaiak gogoko ditu Joxek, batez ere bezpera. "Bezpera egun ederra da. Niri, gehien gustatzen zaidan jai da: danborradagatik, lagun giroagatik, gero emaztearekin danborrada ondoren pare bat trago...; festa ederra da".

Danborra jotzeko prest talde berri bat

Aurten bezperan aterako da kalera Julian Barrenetxea taldea



Julian Barrenetxea Abesbatza taldea azken bi urteetan banderaren jeitsieran izan da.

Herritarren parte-hartze izugarria duten hekitaldiak dira San Sebastian jaietako helduen eta haurren danborradak. Baina parte-hartzea, bi kasuetan, ez da gehitu azken urteetan, horretarako aukerarik ez zegoelako. Baina partehartzearen inguruan iaz sortutako liskarraren ondorioz, udalak talde berriei parte hartzeko aukera emateko deialdi irekia egin zuen. Helduen danborradan parte hartzeko hiru elkarte eman zuten izena: Julian Barrenetxea Abesbatzak, Oilo Soro Kultur Elkarteak eta Zulo Zabal Kultur Elkarteak. Baina, hiru talde hauetatik bakar bat, Julian Barrenetxea Abesbatza, aterako da aurten San Sebastian bezperako danborradan. Hala ere, izena eman duten

beste bi elkarteek 2004an parte hartzeko aukera izango dute. Erabaki honekin, Julian Barrenetxea abesbatza "gustura" azaldu da, erabakia "justua" omen delako; eta, araudia berritzean, nahi zuten taldeei danborradan parte hartzeko aukera eman zaielako.

HAURREN ARTEAN. Umeen danborradan parte hartzeko talde berri baten eskaera ere izan du udalak: Lagun Onak Mendi Bazkunarena. Udalaren oniritzia jaso du, baina baldintza batekin: 12 urtekoak izan beharko dira danborzaleak. Aurten ez, baina agian 2004an talde berria izango da danborjole txikiaren artean. ●

euskara da oparirik onena



Zabal itzazu mundura jatorrizko bertsoan

100 produktutik gora dituzu aukeran. Bideoirik onenak, mahai-jokoak, bideo-jokoak eta CD-ROMak dituzu zain. Alaiak, entretenigarriak, zirraragarriak eta euskaraz!

Bete ezazu txartel hau eta bidaiatu aldizkariaren helbidera. Bideoak, bideo-jokoak, mahai-jokoak, haurrentzako puzzleak... ditugu zuri oparitzeko.

Izen-abizenak _____

Helbidea _____ P.K. _____

Herria _____ Tel. _____

euskaraz? bai.

uztarria



Euzkara? bai. Aldizkariaren Helbidea: Euzkara? bai. Aldizkariaren Helbidea: Euzkara? bai. Aldizkariaren Helbidea: Euzkara? bai.

amuko zubitik Jabier Altuna

GURE
'PRESTIGE'

Galiziako hondamendia dela-eta, gure artean bi jarrera daudela esango nuke:

- Benetako nahigabea, hainbat familiarentzat eta ingurumenarentzat suposatzen duena kontuan hartuta.

- Espainiako Gobernua egiten ari denaren aurrean halako erdi *katxondeo*, erdi iseka: ez dituzte Fraga eta Aznar aukeratu? Izorratu dituzela! Hurrengoan hobeto pentsatu dezatela!

Denok gaude ados: izugarria gertatu da; petrolioa horrela garraiatzeko eskubiderik ez dago, petrolio konpainiek nahi dutena egiten dute, kontrolak ahulak dira. Gobernua oso gaizki ari da, berandu. Bigarren jarreraren inguruan, beste zerbaitek kezkatzen nau. Besteen egoeraz kezkatu eta penatu bai, baina geurea konpontzeko zer? Ikusi al duzue nola dagoen ibaia azken euriteen ondoren? Agian lehen ez nintzen konturatuko, baina ibai bazterrak hain zi-kinak ikusi ditudanik ez naiz gogoratzen. Nork botatzen ditu hainbeste plastiko, botei-

la,...? Zenbat zakar poltsa bota behar dira ibaira bazterrak horrela zikintzeko? Azkenean nora iristen dira zakarrak? Kasu honetan, ezin diezaiokegu ez dakit zein fabrikari bota errua; herritarrok egiten dugu; ezin al da eragotzi? Mendian ibiltzen den batek esan zidanez, ehiza-postu asko omen daude, eta hauen ingurua zerri eginda: kartutxoak, botelak... Ezin al daiteke garbitasuna hobeto lotu?

Azkenean, beti norbait behar da okerrak zuzentzeko, eta honek ematen dit tristura: ez ote dugun gure burua aurreraikituz, ekologistatzat; eta ez ote garen iruzurti eta hipokritak. Galiziagatik pena sentitzea ondo dago, baina konpon dezagun gure ingurua aurretik.

Alde ona ikusiz, harrিতa nago bolondresekin; ezagun ditudan zenbait gazte haruntz jolan dira; inoiz ez zitzaidan bururatuko halako zerbaitegiteko gai zirenik; klasea bukatu, autobusa hartu eta petrolioa garbitzera. Dena ez da beltza Galizian.

azketako ude Ainhoa Odriozola

AURTENGO
TURROIA

Aurtengo Gabonetako nobedadea ba al dakizue zein izan den? Ez dira kaleetako argiak. Ez dira zurituta eta hezurrik gabe datozen mahats ale latatxoak ere, ezta umearen etxeko lanak egiten dituen robot-jostailua ere. Nobedarerik nobedosoena Sin Txan-en turroia izan da. Ez duzula ikusi? Supermerkatu guztietan daukazu apaletik begira. Ez duzula dastatu? Etxean haurrik ez dagoen seinale. Hau-rrak izateaz preziatzen den edozein etxetan "*e-zin-bes-te-ko-a dun*" ospakizuneko afa-loste edo bazkalostean turroi hori ateratzea.

Izan ere, zein haurrek ez ditu ezagutzen Sin Txan-en abenturak. Gurasoen lekuan jartzen naiz: "Nolako *lata* ematen duten, azkenean erosi egin behar". Badakigu haurrak ze temosoak diren, eta exijenteak, txiki-txikitatik gainera: "Biberoiak *Chico*, eta frutak *potitokoak*, hiru belozidadetako tetina..., eta *dextrinat*u gabeko zerealik ez eman, igarri egiten dio

eta". Gero hitz egiten ikasten dute: "ama lo-lo ez, dantxan-dantxan" goizeko ordubietan igoal. Lengoaiaren menperatzean, lehen eskariak: "Ama... erosii!". Eta *Juguetes sin froteras*-eko lehen egoitzak sortzen doaz: "Etxean gu kabitzeko jostailuak atera behar". Azpeitian ditugun jolas-leku dotoreekin. Katarro galantak harrapatutako guraso eta aiton-amonak ezagutzen ditut, ilundu arte parkean korronte bizitan: "...ez bada nekatzen, gero edozeinek lotaritzen du". Gabonak umeentzako dira: "Aita... erregeek non erosten dituzte jostailuak?" Non erosi bai, baina zer erosi? Ez da erraza umeen eskarien, telebistako iragarkien eta beren garapenerako behar pedagogikoen artean jostailu egokia aukeratzea.

Ni, Goierriko amona maitagarri bati entzundakoarekin gelditzen naiz: "*umek inuxentek diala... umekin dabiltzanak bai inuxente galantak!*".

puntie ateaiez

Enekoitz Esnaola

ZORIONAK
BIOI

Zorionak udalari: azkenean kiroldegiko buzoian jarri du kartel txikia euskaraz ere! Dozena bat urtean hor egon da *Buzón de sugerencias*. Orain goian du *Erreklamazioetako gutunontzia*. Normala da horrenbeste denboran buzoian erdarazko kartela soilik egotea: zaila zen ikustea ere, eta, beraz, zaila horretaz ohartzea, eta ohartuta ere denbora behar da beste paper bat aurkitzeko, eta denbora euskaraz kartela egiteko, eta gero kokatzeko... Beste dozena bat urtera erdarazkoa kentzen badute, ondo.

Eta zorionak euskaltzaleei, urteetan behin eta berriro bete dutelako buzoia gutunez, kartela euskaraz jarri behar zela exijituz...

Sinatzailea: euskarak bere lekua izateko udalak eta euskalgintzak elkarlanean jardun beharko luketela irizten dion euskarazalea.

bota bertsue


Beñat Lizaso

2003

Hilabete hau berezia da, hori ez al da nabari? Egun batetik bestera pasa baitira gauza ugari. Urte berria hasiko degu guzti-guztiok kantari; agur esanaz urte zaharrari eta kaixo berriari.

Bi mila eta hirugarrena iritsi da leun-leun, bi mila eta bigarangoak bazuen nahiko ohiartzun. Urte zaharra amaitu degu berria ez dator ilun; amaitu ondo amaitu degu, hobeto hasi dezagun.

TA GABONETAKO SOBRAK IÑOK IKUSI
AVRRETIK ABER URTE BATZUTA GURE SEME-ALABAK
LAPATX-MENDIRE IYOTZEKO AUKERAİK EUKITZEBEN!!
GORA EUSKADI



BERTSO PARRANDA.

Erniarraitz Bertsozale Elkartek antolatutako Bertso Parranda'2002

jende ugari jarraitu du, eta tabernetan ostiral iluntzetan giro paregabea sortu du ekimen honen.



DANBORRADA.

Azke-nean lortu dute udalak eta danborradako taldeen batzordeak akordioa talde gehiago izateko. Beraz, danborrada parte-hartzaileagoa izango da aurtendik aurrera.



SANSEBASTIANETAN ZEZENA BEHIN?

Lehenengo entzundako galdera: zenbat aldiz egongo da aurten Sansebastianetan sokamuturra, bezpera igandea dela eta: behin edo bi egunez? Udalak esan du behin.

kartak

Suziri japoniarrak ez dira jokoak

Azaroko Uztarria aldizkaria irakurtzen hasi nintzenean, harrituta gelditu nintzen suziri japoniarrei (eta ez lñaki Urangak orduan idatzi zuen bezala "joko japoniarrak") buruzko gutun bat irakurri nuenean, baina nire harridura handiagoa izan zen, jakin gabe kritikatuak izan zirela ikusi nuenean.

Nik neuk gutuna irakurri ondoren, lñaki Urangari honako hauxe esan nahi diot: ez dela gauza berdina suzko erroberak botatzea, edo su japoniarrak jaurtitzea.

Lehenengoz su japoniarrak bota zituztenean bertan nengoen, eta bere ustezko "hiru hesi" horiek sei zirela esan nahi dut. Bigarrenegoz, suziri horietatik goxokiak eta jostailuak ateratzen dira, eta ezin dira hauek alderatu 11 urteko umearen bi-ziarekin bukatu zuten suzko

bada keje!



Eta oinezkoak nondik?

Oinezkook, nonbait, Landetan lasai ibiltzeko aukerarik ez daukagu. Landetako zubian bertan, bi norabidetan, autoak lasai ederrean dabilzan bitartean, lanera oinez ibiltzen garenok, zubitik pasatzeko, arriskuan jarri behar izaten dugu gure burua. Bi autorentzako pasabidea dago zubi horretan, eta oinezkoentzako lekurik ez dago bi auto suertatzen badira une berean. Oinezkoentzako espaloirik ez, eta zubiak berak, errepideak, bazterbiderik ere ez du.

Angel Aizpuru

erroberekin, istripu hau ez baitzen gertatu segurtasun neurrien faltagatik, jendearen zuhurtziarik ezagatik baizik. Ez dakit hori berak jakingo duen, baina jendea 25 metro baino gutxiagora zegoen, berez ehun metrora baino gehiagora egon behar zuenean (ume hura hurbilenean zeudenen artean zegoen). Eta informazio gehiago jaso nahi badu, egunkarian etorri zen ongi argituta, hurrengo egunean.

Gutun hau irakurtzen baldin baduzu, lñaki, ikusiko duzu zuk baino gehiago dakidala mundu honi buruz. Batik bat, aspalditik jarraitu ditudalako suzko erroberak, eta garbigailuarekin ibiltzen den udal langilearen alabaren laguna naizelako, oraindik eta gehiago.

Eta ez dut onartzen horrelako gaiei buruzko kritikak egitea informazio zehatzik izan gabe, horrela nire laguna eta bere aita bezalako jendea gaizki gelditzen baitira herriaren aurrean, inolako arrazoirik gabe.

Ainhoa Egiguren

akullue




Leire Ostolaza

URTARRILEAN
KOMERIAK

A benduaren seitik zortzirako zubian, bada jendea kanpora irteteko joera duena; eskiatzera, mendira edo Errioxara bodegan ardoaz gozatzera... Egia esan, azpeitiarrak, beste lekutakoen antzera, ez gaude etxean geratzeko, eta egutegian zirrikitu txikiena agertu orduko, hor goaz opor txikiak igarotzera. Pare bat aste pasa orduko San(to)tomasak, eta gainean Gabon gaua. Denetik eta onetik izan nahi izaten dugu etxeko mahaian. Egun handia da Gabon eguna eta Olentzero etortzen da opari eta guzti. Hilabete berean hirugarren zartadako poltsikoari, eta segi egin behar. Urte Zahar gaua dugu hurrena, eta Urte Berri eguna. Berriro ere mahaikada etxean, eta ezin zurkeritan ibili urtea amaitu eta berria hastean; beste zartadako bat poltsikoari, eta oraindik Errege gaua falta eta errege opila. Urtarrilaren 7a azkenik, eta etxean gustura, Gabonak ondo ospatu ditugulako; astotik erori eta kontu korrontean zulo galanta daukagula konturatu arte. Begien aurrean ia hilabete osoa, eta betiko faktura mordoa buzoian, eta makina bat etxetan arrautza frijitua afaltzeko, Gabonetako otarrainen faltan. Hala ere, ez daude hobeto arrautza hori Gabonetan ere etxean falta izan zaienarekin otuz jan behar dutenak. Urte berri on!

galdeiez

'Prestige' untziak sortutako hondamenak eraginik ba al du arraindegietan?



uztarria.com-eko eztabaidie

GAIA: Uztarria Kultur Koordinadoraren webguneko 'eztabaidan' atalean Gabonei buruz sesioan dabilta kide batzuk. Hona hemen gutun horietako sorta bat:

Kontraesan handia

Gabonak gure bizitzako kontraesanik handiena dira. Denok, beti, faltsuak direla diogu. Baina praktikan, denok eroritzen gara ohikerian: umen aitzakian, denei opariak; izugarritzko *banke-teak*; behin ere kasorik egin gabeko jendeari urte berri on esanaz... Eta horrelako gauza asko.

Eme

Dirutza gastatzen da

Ni, oraingo gai honetan ere, eta bateren bat haserretuko bazait ere, Udalari zuzenduko natzazio, hura delako azpeitiar denon erakunde bakarra. Eta Petxe-k esandakoari jarraituz: Azpeitiko Udalak (beraz, azpeitiarrok) zenbat diru gastatzen du Gabonetan eta aurreko egunetan herriko argi santu horiekin? Inor fijatu al da benebenetan zenbat argi dauden herrian? Aurreko batean Eibarko argizatze datuak-eta ikusten egon nintzen, eta izugarriak dira. Izugarritzko dirutza gastatzen da herria argizatzen Gabonetan. Ezin al da ezer aurreztu? Eta erregetako kabalgatarekin zer gertatzen da? Gabonetan Azpeitiko Udalak antolatzen duen ia gauza bakarra, erregetako kabalgata da. Antena 3-n Madrilgoak, ETB-n Donostikoak, eta Kaiton Azpeitiko erregeak, gora gu eta gure tradizioa!

Naxi

Eroski arraindegia

(Maite)

"Egia esan, ez da ikaragarri nabaritu. Gure arraindegian, batik batik muskuiluetan egon da jeitsiera, lehen baino gutxiago iristen baitira. Jendearen aldetik komentarioak badaude, sarritan galdeetzen dute gaiaren inguruan. Gabonei begira ez dut uste prezioak horregatik igoko direnik, mariskoari dagokionez behintzat. Igotzen badira ere, bestela izango da. Gabonetan urtero igotzen dira prezioak, eta aurten ere hala gertatuko delakoan nago. Ez dut uste *Prestige* dela-eta prezioak igoko direnik".

Argiena gehiegitxo da

Arazoi duzu Naxi, zenbat diru gastatzen ote du udalak gabonetako argiekin? Eta plazaku argiak gehiegitxo iruditzen zaizkit. Handik pasatu eta itsutu egiten da bat. Gainera, abenduaren hasierarako herri osoan piztuta daude argiak, ezin al dira (pixka bat aurrezte aldera) beranduago piztu?

Petxe

Erregeek merezi dute

Niri ez zait gaizki iruditzen udalak erregeak antolatzea, —baina ez dut esan nahi udalak hori bakarrik antolatu behar duenik—. Eta erregeei buruz galdera bat: zergatik dago erregeak kanpoko kulturaren eragina duten sentsazioa jendearen artean? Nik uste dut, erregeek Euskal Herriaren historian daramazkiten urteengatik bakarrik, euskal tradizioan sartzea merezi duela.

Eta Olentzero, zenbateraino da euskal tradizioko pertsonaia? Zenbateraino da Olentzero herri edo bailara konkretu bateko pertsonaia? Euskal tradizioaren globalizazio adibide moduan ikusten dut. Leku bateko tradizioak Euskal Herri osora zabaltzeko joera handia baitauegu.

Olentzero?

Iturrioz arraindegia

(Nekane Iturrioz)

“Oraindik behintzat ez dugu ezer nabaritu. Hemen marisko askorik ez da egoten, baina, arrainari dagokionez, ez da aldaketa nabarmenik egon. Jendeak asko galdetzen du gaiari buruz. Ez dakite zer gertatuko den, eta galdetu egiten dute. Gabonetan ez dut uste prezioak igoko direnik, eta igotzen badira Gabonetan beti hala gertatu ohi delako izango da. Momenturen batean, *Prestige* hori dela-eta arrain eta marisko gutxiago iristen bada, beste leku batzuetatik ekartzen hasiko dira”.

UZTARRIAREN WEB ORRIKO INKESTAK

1. GALDERA: Egoki iruditzen al zaizu **Santutxo, Etxe Alai eta Arana auzoetara igogailua jartzea?**

- **Bai:** %92
- **Ez, ez dut beharrezkoa ikusten:** %6
- **Ez dakit:** %1

Kontxi arraindegia

(Jon Iparragirre)

“Prezioetan nabari da, batik bat txirlen prezioa asko igo da. Bestelako arrainetan ez da aldaketa gehiegirik izan, baina bai txirletan. *Prestige*-n hondamendia gertatu zenetik jendeak beti galdetzen du zerbait, ea hona helduko al den eta horrelako galderak. Nire ustez, Gabonak helduan mariskotan ikusiko da eragina, batik bat. Orokorrean beti igotzen dira prezioak urteko garai honetan, baina aurten hori gertatu dela-eta, baliteke mariskoaren prezioaren igoera handiagoa izatea.

Villegas arraindegia

(Fernando Villegas)

“Egia esan oraindik ezin dut balorazio zehatzik egin. Orain gabonetan ikusiko dugu zer gertatzen den. Galiziatik normalki behintzat muskuiluak, txirlak eta lanpernak ekartzen dira, jaki zehatz batzuk hain zuzen ere. Bestelako arraina, ordea, kanpotik ere etortzen da, adibidez Eskoziatik. Jendeak beti galdetzen du, batik bat han gertatu den zoritxarrari buruz komentarioak egiten ditu. Kezka badago jendearen artean. Gabonetan prezioak igo egingo dira, baina, gabonak direlako.

uztarria.com-eko albistiei erantzunez

GAIA: Uztarria Kultur Koordinadoraren webguneko ‘Albisteak erantzunez’ atalean Erantzun Ekimenak abenduaren 19an deitu zuen lanuztearen inguruan aritu dira. Hona iritzi batzuk:

Duintasunez epaituak?

Duintasunez ere epaitu dituzte batere errurik gabe ezker abertzaleko hainbat bolondres (hitz hau modan dago, baina igoal petrolioak jasotzeko bakarrik balio du). Duintasunez ari da hainbat jende ere Euskal Herriko gatazkaren ondorioak pairatzen: hildakoak, torturatuak, atxilotuak, mehatxatuak (bi aldetatik)... eta zuek! Denda bi orduz ixtearen ondo-riko ekonomikoei begira! Kamioia gurutzatu eta etxera iristerako babarrunak gogortuta zeudelako amorruz!

Egoistak

Eztabaida desbideratuz

Hemen, denok ahoa erraz betetzen dugu jasotako erasoaren aurrean: *Garzonada*, berriz ere frankismoa eta abar. Baina zerbait egin behar denean horrelako eztabaida antzuekin gaia desbideratu baino ez dugu egiten. Hitz egin dezagun lanuztearen arrazoiez, erasoez, konponbideez...

Kurai

Hanka motz

Kontua ez da babarrunak gogorrak edo bigunak zeuden, kontua da duintasuna eskatzen duenak

Duintasunez...

Ez da egiten

Kontua da, batzuek ez dutela onartzen egoera antidemokratiko batetan gaudela. Batzuentzat demokrazia ezaren arazo bakarra ETA da. Ondorioz, jendeak ez du ezer egiten egoera *demokratiko* batetarantz joateko. Horren aurrean bi bide daude: masaileko bat hartu orduko, bestea jarri, eta fuerteegi ez emateko eskatu; edo, gogor erantzun. Egoera demokratikoa eskatzen duenak, egoera demokratiko bat balego, ez luke kamioia gurutzatu beharrik izango.

Duintasunez-i

“Denok, gabonak faitsuak direla diogu. Baina, praktikan, denok eroritzen gara ohikerian”

Eme

“Zergatik dago erregeak kanpoko kulturaren eragina diren sentsazioa jendearen artean?”

Olentzero?

“Gabonetan herria argizatzen izugarritzko dirutza gastatzen da”

Naxi

GAIA: 'Maiatzeko udal hauteskundeak'. Zein da azken urteetako balorazioa? Nolakoak izango dira hauteskundeak? Zilegitasunik ba al dute Batasunak ezin badu aurkeztu?...

Oharra: hurrengo aleetan ere eztabaida hau plazaratuko du Uztarriak; beraz, idatzi nahi duenak bidali artikulua aldizkariaren helbidera

ORAIN ARTE BEZALA, AZPEITIAK EAJ-PNV GOGOAN IZANGO DUTE

Azpeitiko udaletxean, EAJ-PNV alderdiak 24 urte damaramazki gobernatzeko, eta azkenengo 18 urtetan alderdikide den Jose Mari Bastida izan da alkatea.

Urte hauek guztietako balorazioa, esaldi batean laburtuz, zera izango litzateke: Azpeitian aspaldian lan asko egin dela. Begiratu bestela, Azpeitia nola ari garen jartzen, etxebizitza piloa egin da... Gaur egun badago hutsune bat: Babes Ofizialeko Etxebizitza ez dela egin aspaldian Azpeitian, azkenak Damaso Azkueko etxebizitza egin baitziren. Baina gai honetan ere lanean ari gara; ahalegina egiten ari gara, eta ea laster hasten diren babes ofizialeko etxebizitza egiten. Dagoeneko udala lur-jabeekin-eta hizketan hasia da. Udalean une hauetan aurtengo udal aurrekontuak lantzen lanean ari dira, eta laster onartua izango da.

Orain berriz, hauteskunde berriak datozela-eta hauteskondeei begira ere lanean ari gara. Oraindik ez daukagu maiatzeko udal hauteskundeetako zerrendarik, Azpeitiko EAJko batzarrean gaia landu eta onartu gabe baitago. Gu, egunotan, EAJko Azpeitiko mahaietan lanean ari gara zerrendarekin. Gero, alderdikideen batzarrera eramango dugu, eta batzarraren onospena jaso beharko du zerrendak. Iruditzen zait hil honetan (urtarrilean) dena onartuta egongo dela, eta ezagutzera emango dela, gainean baititugu hauteskundeak.

KOALIZIOA. Maiatzeko udal hauteskondeei begira Azpeitiko Eusko Alkartasunarekin hizketan aritu gara, guk ahalegina egin dugu zerbait bateratua egiteko; eta hala nahi genuen. Baina, gaur egun, badi-rudi ezinezkoa dela. Nahiz eta gu Azpeitian EArekin hizketan aritu, goi mailan ez dira konpondu, eta ez du ematen konpontzeko esperantza handirik dagoenik. Gu geu gustora joango ginateke batera. Azpeitiko Eusko Alkartasunarekin udaletxean akordio bat eginda gobernatu dugu azken lau urteotan, eta gerora ere akordio bat egiteko aukera izango dela uste dugu, baina ikusiko dugu... Guk elkarrekin joan nahi genuen, eta ez Azpeitian bakarrik, leku guztietan baizik.

Azkenengo hauteskundeak izan zirenean, Azpeitian botuen %67a lortu genuen —EAJ eta EA-k elkarrekin— eta hori horrela ikusita... Baina dirudienez, ezin da beste ezer egin.

Esan bezala, hegemonia EAJ-PNV alderdiak izan du Azpeitiko Udalean hogeitaka urtean. Lehenik hegemonia osoarekin, eta gerora —ez ginen heltzen gehiengo absolutura— Azpeitiko Eusko Alkartasuna alderdiarekin lortutako akordio bidez, boterean izan gara.

Gu hasi ginenean, 1979an, Azpeitian 11 zinegotzi atera genituen, eta bigarrenengo hauteskundeetan 12 atera zituen EAJ-PNV-k. Gero, zatiketa gertatu zen alderdi barruan, eta bi zatitan banatu ginen. Azkenengo udal hauteskundeetan, EAJren eta EAren artean 11 zinegotzi lortzen jarraitu dugu. Lehen ere, bat ginela, 11 atera genituen. Alderdia zatitu zenetik gaur egunera arte, zaila izan da bederatzi zinegotzi lortzea. Orain arte, akordioak eginez aurrera egin dugu. Ez dakit posible izango den akordio batera heltzea, baina guk behintzat ahalegina egingo dugu. Baina, aurretik, bederatzi zinegotzi ateratzeko ahalegina egingo dugu, gure helburua hori baita, bederatzi zinegotzi lortzea Azpeitiko Udalean;

bederatzi zinegotzirekin gehiengo absolutua lortuko genuke. Azpeitiko herriak orain arte EAJ-PNV alderdia gogoan izan du, eta espero dugu datozen maiatzeko udal hauteskundeetan ere hala izango dela; gu ahaleginduko gara gauzak ondo egiten.

PROGRAMAREN ARDATZAK. Gaur egun Azpeitian egin nahi diren proiektu edo egitasmo handiak aurrera doaz Azpeitiko Udalean; hau da, udalak lehen pausoak emanak ditu proiektu hauek bideratzeko asmoz. Loiola-Biden, Azpeititik Loiolara artean egin nahi den zaharrentzako-eta zentru handia; Babes Ofizialeko Etxebizitza egitasmoa ere lantzen ari gara; eta Azpeitiko saihesbidea. Hiru ardatz nagusi daude, beraz: saihesbidea, Babes Ofizialeko Etxebizitza eta Loiolarako bidean egin asmo den zaharrentzako etxea. Gaur egun aurreneko urratsak emanda daude hiru egitasmoetan. Beraz, lanean hasiak gara.

HAUTESKUNDEAK. Hauteskunde hauek garrantzi handia dute EAJ-PNV-rentzat. Eta, bakarrik joaten baldin bagara, garrantzia handiagoa izango dute. Hauek izango baitira datozen hauteskundeetarako erreferentzia, hau da, maiatzeko hauteskunde hauetan ikusiko da kontuak nola dauden. Hemen gorabehera handia dago, Batasuna nola gelditzen den, ilegalizatu ez ilegalizatu, nola datorren, zer egingo duen... Kontu horiek guztiak aztertzeke daude. Oraindik ez dut uste inork dakienik maiatzeko hauteskundeak nola joango diren, gauzak dauden bezala egonda, gauza asko pasatu daitezke.

Eta dagoeneko urte berria hasi dugunez, urte berri on bat opa dizuet guztioi.

“ Geu datozen hauteskundetan gustura joango ginateke EArekin batera ”

“ Maiatzeko hauteskundeak garrantzia handia dute EAJ-PNV-rentzat ”



HAUTESKUNDEAK GAINEAN, AZPEITIKO UDALERA BEGIRA

Esatzen da, euskaldunok politikoki anitzak garela, eta pentsatzen dut alderdi politiko bakoitzak bere mezu eta egitasmoo edo proiektu propioak aurkeztu beharko litzuketela hautesleriari, batez ere indar “*constitucional*” deritzanak abertzaleen gehiengo arriskuan ez dauden herrietan, kasu Azpeitia eta inguruan. Ondoren paktuen bidez lortuko litzateke elkartzea, orain gertatzen den moduan. Hau da nire iritz pertsonala, baina aitortu behar dut hau ez dela nire inguruan somatzen dudana giroa. Alderdietatik at dagoen jende arruntari, elkarrekin batera joateko gogo nabari diot, bestela botoa emateko ilusioa galdu eta zenbaitzuk abstenitu ere egingo lirateke, eta irizpide hau beste lekuetan ere orokorra balitz, bi alderdiak kontutan hartu beharko lukete, eta orain etena dagoen elkarriketa berri ere abian jarri. Hori bai, paktuak akordioa esan nahi du, adostasuna, bakoitzaren neurri eta proportzioen arabera, eta ez prepotentzia edo inposaketa.

UDALAREN LANA. Azpeitiko Udaletxean egin beharreko lanaren inguruan bi puntu azpimarratuko nituzke. Lehendabizi, babes sozialeko etxebizitzak eraikitzea lehen bait lehen. Urte askotxo baitira jada horrelako etxebizitza berri egin gabe, eta zenbait sektoreen eskaerak gero eta ozenagoak dira. Etxebizitza asko

“**Espero eta nahiko nuke, orain Sozialista Abertzaleak deritzan alderdia, hauteskundetara aurkeztu ahal izatea**”

eraiki dira baina beren prezioak gaur egun ezinezkoak gertatzen dira gazteentzat, langile sektore handi batentzat eta abar, euren irabaziek ez dietelako horretarako ematen. Badakit, aspalditik udalak badaukala San Migel aldean eta alde zaharrea babes sozialeko etxeak egiteko egitasmoo, eta honek lehentasuna eduki behar luke beste ekintza guztien gainetik. Bigarrenik, Basozabal eraikina herriko talde guzientzako prestatu eta zabaldu beharko litzateke; ekintza sozialetako, talde politiko, kultural, kirol, aisialdi eta abarretarako irekia. Badakit, baita ere, hau horrela paperean ipintzea oso erraza dela, eta gai konfliktiboa dela hainbat eta hainbat herritan. Baina pentsatzen dut nonbaiten ondo funtzionatuko duela eta hango barne arautegi berdintsu bat ezarri beharko litzatekeela hemen ere. Gazteek ere onartu beharko dute barne arautze bat, eta Udalaren ardura zaintze edo behategi bat erregelak betetzen diren edo ez jakiteko. Uste dut alde denak beren jarrerak malgutu eta bigundu ezker akordiotara iritsi litekeela.

AZKEN URTEOTAKO LANA. Zaila da kanpotik udalak azken urtetotan egindako lanaren balorazio zehatza egitea, eta gauzak behar diren moduan ez ezagutzeak zaildu eta iritzi okerrak emateko arriskua du. Hala ere, ez dut galdera hau saihestu nahi, eta esango nuke denetarik dagoela, ekintza positibo eta onak eta baita ere bestelakoak. Onen artean: espaloiak ezinduei egokitzea. Uste dut Azpeitia izan zela ekintza honetan aurrena, eta beste herrietako udalarentzat eredu gainera. Bestalde, herria oso txukun eta garbi mantentzen da, lorategiak, urbanizazioak, eta abar nabarmentzen direnak dira. Haur, gaztetxo eta nerabeek ere ondo hornituak daude, eta uste dut baserritarrek ere hala daukela. Hutsuneen artean, aldiz: aurrez aipaturiko etxebizitza sozialeko eraikitzea eta Basozabal eraikinen erabilera irekia, zabala eta anitza elkarte eta talde guzientzat. Udalaren eta gazte talde baten artean dagon gatazka ere konpontzeko litzateke, eta horretarako Basozabal abian jartzeak lagundu lezake, eta lehen esan dudana eran elkarren arteko jarrerak malgutuaz egoera hori gainditu beharko litzatekeela uste dut.

EZKER ABERTZALEA. Espero eta nahiko nuke, orain Sozialista Abertzaleak deritzan alderdia hauteskundetara aurkeztu ahal izatea. Gogoan dudanez, hasiera batetan herri bakoitzean koalizio moduko formazio bat aurkezteko asmoa zegoen, herri bakoitzean izen desberdinarekin, eta horretarako izenpe edo sinadura pilo bat jaso behar izaten zuten. Horrek, noski, ahalegin handi bat eskatzen du herriz herri sinadura pilo bat eskuratzea. Baina lehen egin bazen gaur egun baino antolakuntza gutxiagorekin, orain zergatik ez?. Uste dut, SAk jakingo duela irtenbideren bat aurkitzen. Ez baluke aurkezterik izango, gure herri honetan dagoen katramila areagotuko litzateke, eta batzuk hainbat aldiz ahotan erabiltzen duten “demokrazia” lehenaz gain hankaz gora jarriko dute.

Horretara, hauteskunde horiek behar den zilegitasunik ez lukete izango, baina abertzaleak ezin diegu etsaiei kanpo-librea utzi, ez eta gutxiago ere, beraiek horixe nahi izango lukete eta. Bai, aurkeztu behar da, ezin gintezke horien amarru eta sareetan erori.

Higinio Oiartzabal

Azken bi urteotan lanean ari da Agenda 21 programaren baitan sortutako ingurumen foroa. 2001eko urtarrilean aurkeztu zen. Bi urtetan, azpeitiarrak eta azkoitiarrak mahaiaren bueltan, elkarrekin, bi herrietako herrien egoera ingurumen arlotik aztertzen. Nondik nora sortu zen ingurumen foroa? Azpeitia-Azkoitia Agenda 21 programaren baitan sortu zen. Hauxe dio Izaskun Zeziaga Azpeitia-Azkoitia Agenda 21eko teknikaria: “Udalalde 21 proiektuan Azpeitiko eta Azkoitiko udalek sartzeko aukera izan zuteanean, Agenda 21 dokumentua diseinatzeko hasi ginen. Baina, Agenda 21 udaletik sortzen den prozesu bat izan arren, herritarren partaidetza edota iritzia jakitea oso garrantzitsua da; eta, horregatik, bi herrietako diagnostia egiten hasi ginenean, ingurumen foroa martxan jartzeko pausoak eman genituen”.

PARTAIDETZA. Herritarren partaidetza izan nahi zuen udaleko ingurumen programaren diseinuak, baina nola osatu zen eztabaida gunea? Ingurumen foroa osatzeko emandako lehen pausoa galdeketa izan

“Guretzat oso garrantzitsua izan da foroko kideen ekimenez lan taldeak antolatzea”

Izaskun Zeziaga

(Azpeitia-Azkoitia Agenda 21eko teknikaria)

prozesua pausoz pauso

- **AALBORG-EKO ITUNA.** Azpeitiko Udalak 2000ko maiatzean sinatu zuen, eta ingurumen arloan konpromisoak hartu zituen.
- **UDALTALDE 21.** Eusko Jaurlaritzak 2000. urtearen bukaeran sortu zuen urtebeteko ingurumen proiektua da. Azpeitiko Udalak Azkoitiko Udalarekin batera proiektuan sartzeko aukera izan zuen. Urtebetean, hau da, 2001eko abendua arte, Azpeitiko eta Azkoitiko udalak Agenda 21 proiektua diseinatzeko aritu ziren.
- **AGENDA 21.** 2002ko urtarrilerako programa diseinatu zuten Azpeitiko eta Azkoitiko udalek. Agenda diseinuan laguntzeko lehenengo pausoa, bi herrien diagnostia egitea izan zen. Horretarako ingurumen foroa sortu zen: bi udaletako ordezkariak, gizarte eragileetako ordezkariak eta hainbat herritarren partaidatzarekin. Jarraian, bost urtetarako ekintza plana egin zen. Dagoeneko ekintza planeko pauso batzuk aurrera ematen ari dira.

zen: “Bi herrietako gizarte eragile guztiei galdeketa bat bidali genien. Eta ondorengo deialdi batean 42 lagun inguruko taldea bildu ginen, eta taldean jarraitu dugu lanean”.

Foroa ingurumen programa diseinatzeko sortu zen, baina behin agenda diseinatu zenean. Galdera bat sortu zen Agenda 21eko arduradunen artean: Zer egin foroarekin, nola bideratu? “Ingurumenaren diseinua egin arte argi genuen foroak zertarako balio behar zigun. Baina, bertan biltzen zen jendearen potentzialitatea ez genuen galdu nahi. Gainera, prozesuak etengabeko partaidetza izan behar du. Bestetik, foroa ez da izan behar eskaerak bideratzeko gunea bakarrik. Gaur egun, foroaren identitatea definitzeko araudi bat tajutzen ari gara”.


Ingurumen foroko kideen ekimenez, hiru lan talde sortu dira, hiru gairen inguruan: higikortasuna, hondakinak eta etxebizitza. “Hiru taldeon helburua gai hauetan sakontzea da. Eta guretzat oso garrantzitsua da foroko kideen ekimenez antolatzea, eta gure laguntza ere izango dute”, dio Izaskunek. Gaiak aztertuz, ingurumenaren baitan lanean jarraituko du ingurumen foroak bigarren urteurrenaren ondoren. ●



INGURUMENA EZTABAIDAN

Agenda 21eko ingurumen foroaren bigarren urteurrenean hiru lan talde sortu dira

**BERTAKO
HARAGIA...
...GURE
HARATEGIETAN**



Beloki
Kale Nagusia, 75 Tel.: 943 85 04 62
AZKOITIA
Jose Artetxe, 21 Tel.: 943 15 1392
AZPEITIA

PATXO

EDUARDO BERASATEGUI
Harategi eta Zerritegia
Euskal Herriko Haragirik Onena
San Inazio Kaleko 12an
Urrut. 943 81 14 98

MATXIN

BERTAKO OKELA
HARZUBIA, 26 D
TEL. 81 60 25
ETXEKOA 15 00 03
AZPEITIA

Harategia Odriozola
Harategi
Especializatua
Arana Kalea, 14
Urrut.: 943 81 1015

J.B. San Sebastián
HERRIKO HARAGIA - HERRIKO TXERRIA
ETXEKO URDAIKIA
FORU HIBILBIDEA, 4
TFNOA 81 15 94
AZPEITIA

ZABALA HARATEGIA

KALITATEZKO HARAGIA
BUSTINZURIKO ERREBALA
TFONOA : 943 811671

udal erabakiek

‘Larunbatez Jolas 2003’-rako begirale deialdia ireki da

Azpeitiko Udaleko Gazteria Departamenduak *Larunbatez Jolas 2003* programan begirale gisa lan egin nahi duten gazte ororentzako deialdia egin du. Iaz bezala, 2003an haur eta gazte-txoentzako larunbatetako aisialdirako programa martxan jarri nahi da, eta horretarako begiraleak behar ditu Gazteria sailak. *Larunbatez Jolas* programan parte hartuko duten begiraleek ondorengo baldintzak bete beharko dituzte: aisialdirako begi-

rale titulua izan behar dute eta azpeitiarra eta 18 urtetik gorako izatea ere eskatzen da. Lanerako gogoia eta esperientzia ere kontutan hartuko dira. *Larunbatez Jolas* programak otsailaren 15etik maiatzaren 10era arte iraungo du. Begiraleen lan eskaintzan izena-emateko epea abenduaren 23an zabaldu zen, eta urtarrilaren 15erarte irekita izango da. Izen-ematea Gazte Informazio Bulegoan egin behar da (Zapo Txoko Gaztegunean). Bulegoaren ordutegia honakoa da: astelehenetik ostiralera 17:00etatik 20:00etara, asteazkenetan 10:00etatik 13:00etara eta larunbata 11:00etatik 13:00etara.

Iker Pou

gurien...

eskalatzailea

«Garbi dago Azpeitian oso maila altua dagoela eskalatzen»

Nerea Aranburu/ Abenduaren 10ean, Lagun Onak Mendi Bazkunak urtero antolatzen dituen mendi proiektzioen barruan, Iker eta Eneko Pouk eskalatzaile gasteiztarrak izan ziren lehen gonbidatuak, *Action Direct bide mitikotik*, *Kanadako Laban Handira* mendi-proiektzioa aurkezten.

● **Noiz eta nolatan hasi zinen eskalatzen?**

Txiki-txikitatik hasi ginen Eneko anaia eta biok eskalada munduan murgiltzen. Bi urterekin jada mendira joaten ginen; gure opor guztiak mendian igaro izan ditugu. Serioski eskalatzen, ordea, 15 urterekin hasi nintzen.

● **Zenbat urterekin igo zenuen lehen horma?**

Lehen horma 16 urterekin igo nuen, Naranjon (Asturiasen).

● **Azpeitian aurkeztutako proiektzioa zertan datza?**

Bi atal desberdin ditu: bata, kirol eskalada gogorraz ari da, *Action Direct* bidea egin nuenekoaz, Alemanian. Beste atala Kanadan kokatzen da, eta bertan, kirol eskalada horma batera eramanda ikusten da, espedizio baten antzekoa da. Hau da, 800 metrotako horma luze bat eskalatzen.

● **Azpeitian afizio handia dago eskalatzeko. Nola ikusten duzu?**

Ondo. Garbi dago Azpeitian oso maila altua dagoela eskalatzen: Leire Agirre, Gorka Karapeto, Beltza... ●

“Txiki-txikitatik hasi ginen Eneko anaia eta biok eskaladan murgiltzen”



Joseba Albizu izan da 2002. urteko kirolaria

Nerea Uranga / 2002ko abenduaren 28a, *inoxente eguna*, larunbata, eguerdia. Udaletxeko areto nagusian, ez da trufa, bene-benetako ekitaldia da. Aretoko eserleku gehienak beteta, denak azpeitiarrak, denak kirolariak (edo kazetariak, ala udal agintariak). Urteroko ekitaldia, Azpeitiko eta urteko kirolari onenaren izendapena. Aurrena, banan-banan, kirolez-kirol, kirol talde bakoitzak aukeratutako kirolari onenen sariak. Guztira 25 sari. Ondoren, 2002ko kirolariaren izena, *2002 Kirolaria*: “Joseba Albizu”. Amaitzeko, elkarrekin bazkaritara joateko aukera. ●

TALDEA	KIROLARIA
Iraurgi Saskibaloi Taldea	Ion Arozena
Lagun Onak Futbol Taldea	Oskar Agirre
Judo Klub Kimura	Ekaitz Amezua
Azpeitiko Karate Elkartea	Jon Marquello
Azpeitiko Aretu Futbola	Joxemi Benitez
Amue Elbarrien Kirol Elkartea	Xabier Madina
Lagun Onak Txirrindulari Taldea	Ander Garmendia
Ilunpe Pilota Elkartea	Ion Beobide
Ikasberri Kirol Elkartea	Iosu Manzisidor
Lagun Onak Mendi Bazkuna	Benantxio Irueta
Lagun Onak Mendi Bazkuna	Gorka Karapeto
Nuarbe Sokatira Taldea	Talde osoa
Izarraitz Igeriketa Elkartea	Antonio Ruiz
Iraurgi Atletismo Taldea	Arantza Aldalur
Lagun Artea Eskuderia	Iñaki Alberdi
Saskibaloia	Eñaut Aranbarri
Txirrindularitza	Joseba Albizu
Pilota	Kepa Peñagarikano
Eskalada	Leire Agirre
Waterpolo	Waterpoloko talde osoa
Igeriketa	Omar Urbieta
Atletismoa	Arkaitz Nogales
Herri kirolak: Aizkolariak	Arkaitz Iriarte
Arrantza	Jesus Zelaia
Erremontea	Txetxu Iriarte
Kazetaria	Karmelo Otaegi
2002 kirolaria	Joseba Albizu

Eli Beobide karrozaren egilea

Haurren danborradako karroza egiteko lehiaketa irekia egin da, eta bi proiektu jaso dira. Proposamenak aztertu ondoren, Eli Beobideren proiektua aukeratu du udalak: "Zezen-plazaren mendeurrena egokien azaltzen duelako".



Zezen-plaza, karrozaren gaia.

Udal zergak eta tasak aldaketak izan dituzte urtarrilaren 1etik

Azpeitiko Udalak 2002ko urriaren 16ko udalbatzan ordenantza fiskalak aldatzea erabaki zuen. Erabaki hau jendaurrean egon da, eta inolako oharpenik ez du jaso; ondorioz, indarrean dago 2003ko urtarrilaren 1etik. Ordenantza fiskalen aldaketak udaleko zerga desberdinak jasotzen ditu bere baitan, hala nola: ibilgailuena, urarena, udal kiroldagiko eta igerilekuko zerbitzuen prezioak, ibietako zergak, zaborrarena eta abar.

pertsonaje




Inazio Arregi

Inazio Arregi azpeitiarrak bigarren apustu bat egin zuen abenduaren 15ean Eibarren. Urko mendira 104 kiloko burniarekin igo zen, Eibarko tren geltokitik abiatuta. Horretarako sei ordu eta 21 minutu behar izan zituen. Orain dela 63 urte eibartar batek egin zuen, Zuloagak. Honek hiru

ordu eta erdian egin omen zuen ibilbidea. Baina, eibartarraren denbora homologatu gabe dago; azpeitiarrarena, aldiz, homologatua gelditu da. Bai komunikabideetan eta baita herritarren artean jarraipen itzela izan du apustu honek. Baina ez da Arregirik eginda duen apustu bakarra, orain dela hamar urte Azpeititik Ernio mendira butano bonbona igo baitzuen. ●

zer dago gaixki, zer sobran, zer faltan?



ERANTZUTEKO EPEA: Urtarrilak 20 (astelehena)

HELBIDEA: Uztarria, Julian Elorza Hiribidea 4, 2. ezkerria; edo 227 posta kutxa (Azpeitia)

AKATSA ADIERAZI (idatziz edo boligrafoz):

IZEN-ABIZENAK:

TELEFONO ZENBAKIA:

IRABAZLEARENTZAT SARIA: Biur arropa dendako oparia.

AURREKO ARGAZKIYE...



...ETA SOLUZIUUE



IRABAZLIE: Mirari Larrañaga Maiz



Mirari Larrañaga Maiz izan da 35. lehiaketako garailea. Azkue dendako erosketari txartel bat irabazi du. Argazkian, Mirari Larrañaga —eskuinean— eta Azkue dendako jabea ageri dira.

abenduko hiru irudiyek



LEIRE LARRAÑAGA



LEIRE LARRAÑAGA

BI IRUDI. Abenduaren 17an Madrilén Guardia Zibilaren eta ustezko bi ETAkideren artean (bata Gotzon Aranburu azpeitiarra) gertatutako tiroketaren ondorioak bi irudi hauek eragin zituen. Tiroketan hildako Antonio Molina guardia zibilaren heriotza salatuzko, EAJK eta EAK deitutako kontzentrazio isila. Arratsaldean, tiroketan larriki zaurituta gertatu zen Gotzon Aranbururen aldeko manifestazioa.

Urolako trenak badu bere liburua: 'Urolako Trena 1926-1986'

Nerea Aranburu | *Urolako Trena* 1926-1986 liburua aurkeztu zen udaletxean abenduaren 14an. Jose Maria Bastida Azpeitiko alkatea, Alvaro Amman Eusko Jaurilaritzako Garraio eta Herri-Lanetako Sailburua eta liburuarren hiru idazleak —Inazio Arte-

txe medikua, Lurdes Odriozola historiagilea eta Juanjo Olaizola Trenaren Euskal Museoko zuzendaria— han izan ziren. Aurkezpenean, liburuaren idazleek egindako lanari buruzko xehetasunak eta gorabeherak azaldu zituzten. Azpeitiko alka-



'Urolako Trena 1926-1986' liburuaren aurkezpena. / LEIRE LARRAÑAGA

AZKOITIA

ERLOJU KONPONKETAK

Arana, 5
AZPEITIA Tel.: 943 81 47 12

TABERNA

Teléfono.: 943 151086

Enparantza Nagusia

Lore Sortak
Koroiak
Lore Apaingarriak

Etxeetarako
Zerbitzua Dugu

Tel.: 943 81 51 87

Loiola-Bide, 25 - AZPEITIA

Euskal Herria, 34
20730 AZPEITIA
Tel.: 943 15 16 40

Larrialdiak:
943 15 16 40

Ekain
ALBAITARI KLINIKA

Argitarapen honen edizioko laguntzaile:

En la edición de esta publicación colabora:

kutxa
zuri esker

Zoruen estaldura: kortxo, moketa, sintasol...
Paper pintatuan aukera handia

URBISTONDO MARGOAK

"KOLOREAREN ESPARRUAN EZ DUGU MUGARIK"

Salbe Auzunea, 35 behea 20730 AZPEITIA - Urrut.: 943 81 57 81



TXORIXOA ETA TALOA. Santo Tomas jaietako festa gunea plaza bihurtzen da goiz partetik arratsaldea bitartean. Jaki nagusiak txorixoa eta taloa. Musika eta dantza, ttuntturroak eta trikixa. Kirola, herri kirolak, eta bertsolariak ere ez dira falta izaten jai herriko honetan.

“Uztapide eta Basarrik bertsolaritzak izan duen bikoterik onena egin zuten, elkarren osagarri zirelako”

Imanol Lazkano
(bertsolaria)

“Tolosan Errastiri baino kategoria altuagoa emateak ilusioa egin zidan”

Kepa Peñagarikano
(pilotaria)

liburuaren atalak

Hiru atal

● **TRENAREN HISTORIA.** Liburuaren lehen zatia Inazio Artetxek idatzi du. Egileak Urolako trenaren ikuspuntu zuzena kontatzen du, trena sortu zen garaitik desagertu artekoa bizi izan baitu.

● **SOZIO-EKONOMIA.** Bigarren atala Lurdes Odriozola historiagileak egin du. Urolako trenaren historia sozio-ekonomikoa landu du. Liburuako atalik zabalena da. Atal hau osatzeko datuak Trenaren Museoan, Azpeitiako eta Zumaiako udal artxiboetan eta Gi-puzkoako artxiboetan jaso ditu.

● **TEKNIKOAK.** Atal teknikoaz Juanjo Olaizola arduratu da. Trenaren funtzionamendua gauzatzeko erabili ziren elementuak, ibilbidearen trazaketa, pasabideak, geratzeko lekuak, lantegiak, kotxetegiak eta hain bereziak diren tren geltokiak landu ditu.

teak, Jose Mari Bastidak, Azpeitian Urolako trenak izandako “garrantzia” nabarmendu zuen. “Bi azpeitiarri esker, Inazio Perez Arregiri eta Julian Elortzari esker egin baitzen trenbidea”. Eusko Jaurlearitzako Garraio eta Herri-Lanetako sailburu Alvaro Ammanek ere izan zuen hitza aurkezpenean: “Pena handia izan zen Urola trenaren itxiera”. Eta gogora ekarri zuen etorkizunerako proiektua: “Merkantziako trenenentzat Urolako trenaren ibilbidea berreskuratzea”.

Liburu salgai dago herriko liburutegietan, 20 eurotan. ●



Pakita Agirre. / UZTARRIA

“Beste preso guztiekin batera, Joxin semea etxera ekar dezatela eskatuko nuke”

Pakita Agirre
(Joxin Arruti presoaren ama)

ODRIOZOLA ARDOAK

Julio Urquijo, 18
Tfnoa: 850011
AZKOITIA

Iñaki Azpiazu, 5
Tfnoa: 15 13 16
AZPEITIA

ostadar optika
OPTOKIAK - OPTOMETRISTAK

Jose de Artetxe, 17
Tel. 943-810664
AZPEITIA

Ibai Ondo, 28
Tel. 943-850445
AZKOITIA

Irudiekin, Iraurgi bailararen zerbitzura

KAITO TELEBISTA

Grabatutako bideoen kopiak egiten dira

81 53 35

CAJA LABORAL EUSKADIKO KUTXA

kitzika joyería

Brilanteak - Urre Zuria eta Oria - Festina Urrea

Pastorleua Tabernaren ondoan
Jose Artetxe, 13 - Tel. 943.15.76.13 - AZPEITIA



“Apustu honekin besteek ere sufritu dute”

Inazio Arregi azpeitiarrak abenduaren 15ean marka saiakera egin zuen; 104 kiloko burdina bizkar gainean hartu eta Eibarko estaziotik Urko mendira (793 metro) igo zen. Egindako denbora: sei ordu eta 21 minutu. Ez zuen marka hautsi. Ez da lehen aldia antzeko apustu bat egin duena, orain hamar urte butano-bonbona hartu eta Erniora igo baitzen.

● Nondik nora otu zitzaizun butano bonbonaren apustua egitea?

Lagun arteko kontu bat izan zen. Afari bat egin genuen, eta afarian betiko eztabaida atera zen, azpeitiarren eta azkoitiarren artekoa, batzuk besteak baino hobeagoak zirela. Kaxero azkoitiarrak orain urte batzuk butanoaren marka egin zuen. Gaia atera zen eta egitea erabaki nuen. Ni orduan sokatiran eta lasterkan ere ibiltzen nintzen, eta prestatu ondoren marka ontzea lortu nuen.

● Bigarren apustua, 104 kiloko burdina hartu eta Urko mendira. Zer desberdintasun zeuden bi apustuen artean?

Oso desberdinak izan dira. Butanoaren kasuan ibilbidea luzea zen, Azpeititik Erniorako bidea eta butanoaren pisua sorbalda gainean. Oraingoan, ordea, ibilbidea askoz ere motzagoa izan da, lau kilometro eta erdi, baina 104

kiloko pisua bizkar gainean. Erresistentzia gehiago behar da sorbalda gainean pisu horri guztiari eusteko.

● Eta nolatan bigarren apustu hau?

Urtarrilean erreportaia bat ikusi nuen, eta bertan apustu honi buruz hitz egiten zen. Askok gustatzen zaizkit horrelako apustuak, eta hura ikusi ondoren egitea pentsatu nuen.

● Benetan gaizki pasatu al zenuen?

Bai. Hasiere batean ibilbide guztian edaria bakarrik hartu behar nuen, hori zen asmoa. Bidean, ordea, kalte, edo ez dakit zer gertatu zitzaidan, eta dena bota behar izan nuen. Handik aurrera jaten hasi nintzen, platanoa, pikuak. Gorputza berriz erantzuten hasi zitzaidan. Hankak ere *kargatu* egin zitzaizkidan eta nahiko gaizki pasatu nuen. Guztira 204 aldiz altxatu nuen burnia.

● Eta biharamuna?

Oso ondo. Gorputzak egunean bertan ondo erantzun zidan. Ni neu ere harrিতa geratu nintzen. Ezin da imajinatu gorputzak zenbat iraua dezakeen!

● Zure hitzen arabera, ez omen duzu berriro beste saiorik egingo. Eta beste apusturen bat?

Ez. Nahiz eta niri apustu hauek asko gustatu, ez dut uste berriro egingo dudarik. Alde batetik, dirurik ez dagoelako; eta bestetik, denbora faltagatik. Egunero lanean zortzi ordu egiten ditut, eta familia ere hor dago. Oraingo apustuarekin, nik ez ezik, jende askok ere sufritu du, etxekoek eta lagunek.

● Ibilbidean zehar jende ugari izan al zen animatzen?

Bai, eta asko eskertzen da. Ibilbidearen hasieran jende asko zegoen. Bidearen erdialdean markarik ez zela izango ikusita, jende batek alde egin zuen. Baina, beste asko goraino igo zen. ●

Orain dela 63 urte

● 1939. urtean Juan Zuloaga eibartarrak hiru ordu eta erdiko denboran egin, ei zuen 104 kiloko burdinarekin Urko mendirako ibilbidea. Zuloagak Eibarko estazioan egiten zuen lan, eta beroaldi baten ostean igo zen mendi tontorrera. Ina-

zioArregiren saiakera ikusi ondoren, ordea, zalantzak ugaritu egin dira. “Probatu ondoren, uste dut ezinezkoa dela denbora horretan eta pisu horrekin mendia igotzea, eta gutxiago garai hartako baldintzetan”, iritzi dio Arregik.





Azpeitiko dendariak, zuen ondoan, zuen zerbitzura

CICLOS BENI

Loiolabide Tel. 150629

LARRAÑAGA KIROLAK

Arana, 3 Tel. 811365

ODRIOZOLA HARATEGIA

Arana, 14 Tel. 811015

EGOKI JANARIAK

Barrenetxe, 8 Tel.815490

ZABALA HARATEGIA

Arrabal, 8 Tel.811671

NEREA MERTZERIA

Arrabala Tel.812862

ZOKOA ANDREEN JANTZIA

Arrabala Tel.815056

ARKUPE KIOSKOA

En. Nagusia Tel.815207

AGIRRE OPARIDENDA

Erdi Kale, 1 Tel.811325

FURUNDARENA OINETAKOAK

Erdi Kale, 9 Tel.811143

URIA ALFONBRAK

Erdi Kale, 29 Tel.812337

AMENABAR JANARIAK

Etxe-alai, 3 Tel.150065

SAN SEBASTIAN HARATEGIA

Foru Ibilbidea, 4 Tel.811594

EGAÑA GOZOTEGIA

Goiko Kale, 10 Tel.811885

JAKA JANARIAK

Harzубia, 19 Tel.816549

ANDONI FRUITUDENDA

Harzубia, 29 Tel.812502

AITZAKI KIROLAK

J.A. Agirre, 4 Tel.150738

OTOLA KINKILADENDA

J.A. Agirre, 7 Tel.811366

SANTI LAZKANO KIROLAK

J. Artetxe, 1 Tel.811650

BALENCIAGA

J. Artetxe, 10 Tel.813400

ERROTAUNDI OKINDEGIA

Euskal Herria, 34 Tel. 816179

J. Artetxe, 14 Tel. 814507

MARTZALA OINETAKOAK

Olazko Amaren Plaza

BELOKI HARATEGIA

J. Artetxe, 21 Tel.151392

ARROSPIDE OINETAKOAK

Loiolabide, 1 Tel. 811914

EMAITZ LURRINDENDA

J.A. Artetxe, 11 Tel.813345

ORDULARI BITXIDENDA

J.A. Artetxe, 10 Tel.815244

ARANTXA HAUR JANTZIAK

J.A. Artetxe,11 Tel.812429

BABESA GAZTE MODA

Urbitearte, 9 Tel.151369

IRIS MERTZERIA

La Salbe, 11 Tel.813298

IRATXO JOSTAILUAK

La Salbe, 24 Tel.150530

ZALDIKO LURRINDENDA

La Salbe, 15 Tel.151275

ICIAR ILEAPAINDEGIA

Loiolabide, 19 Tel.810217

ARADI KIROLAK

Olazko Amaren Pl., 3 Tel.150290

ZURI BELTZ JANTZIAK

Olazko Amaren Pl., 10 Tel.816656

MATXIN ZESTOAK

Pablo VI, 39 Tel.810116

UKABI ORDENAGAILUA

La Salbe, 39 Tel.150101

LUR LORA DENDA

Santiago, 11 Tel.150085

URKE ARGAZKIAK

Urbitearte, 4 Tel.151287

UROLA BIDAI AGENTZIA

Arrabal Tel.150804

M. GRAL . SEGUROS

Pablo VI, 5 Tel.151649

COOP. SUKALDEAK

Arana, 7 Tel.812309

URBISTONDO MARGOAK

La Salbe, 35 Tel.815781

SOINU ELEKTROGAILUAK

Okerra, 11 Zestoa Tel.147938

DUNPI JOSTAILUAK

Erdi kalea, 3 Tel.151890



EGUZKI BELTZA GURE LURRETAN

Agur bat sarrera gisa. Jakitun naiz nire esanek ez dutela munduaren kolorea aldatuko, eta are gutxiago gure herri maitearena. Ez dakit nora eramango nauen idazgailuak, baina bertatik ateratzen den esne beltza izanen da ondorengo kontakizunaren ahotsa. Zuen begirada minutu batez osteaz gain, hausnarketarako errautsak utzi gura nituzke ondorengo hitzetan.

“Goiz hartan ez zirudien eguzkiak gehiegi berotuko zuenik. Mendebaldeko haize finak aurpegia zirikatzen zion aurrera begiratzen zuen bakoitzean. Jadanik hondartza, bere txikitasunean, desagertzeaz zegoen. Nabari zitzakeen uhinak hondar ertzean puskatzen, nabari kaioen askatasuna itsas magalaren azalean. Bizi izandako istorioaren zati bat ahazten ari zela sentitzen zuen. Ez zituen begiak alboratu, harik eta hondartza desagertu zen arte. Ez zen gehiegi urrundu bere herri maitearen labarretik, nahiz eta hondartza begi bistan ez antzeman, mendien harrizko hormak parez pare sumatzen zituen, itsasorratz bat lez norabidea markatzen. Nahiz eta ziur egon bere kokapenaz, nahiz eta ezaguna egin itsasertzeko airearen ziztada, arrotz egiten zitzaion leku hura. Itsas mantura begiratu zuen; begiekin aurrea, buruarekin ondoren eta bihotzarekin azkenik. Ez zituen uhinen eguneroko jauzi eta dantzak ikusten, ez ziren txorien doinu alaiak entzuten, ez eta arrainen ezpain jolasak.

Inoiz entzun gabeko isiltasuna, zorigaitzoko ipuin hartako protagonista bihurtu zen. Ez zegoen gidoirik, ez bigarren aukerarik, soilik errealitatea, amets bihurri guztiak gainditzen zituen errealitatea. Eguna gau bihurtu zen itsasoan, izarrak zerbaitek irentsi zituen eta eguzkiak, oraindik urdin mantentzen zengain hartatik negar malkoak jaurtikitzen zituen. Zoritzarrez malko horiek herri oso baten malkoak ziren.

Zerbaiti heldu beharra izan zuen sosegua mantentzeko, txaluparen ertzen bati, aurrera begiratzeak ematen zion segurtasunari, mendebaldeko haizearen horma labainkorrari edo eguzki izpien zutabe leunei. Helduleku hori zitekeen momentu hartan begien aurrean ikus zezakeen guztiari aurre egiteko irria, indarra, ilusioa, bizia.

Esku biluzien laguntzaz itsasoko lorde beltz koipe-tsua jasotzeari ekin zion. Txalupa txikia hondakin ontzi bat bailitzan, bertan utziz zioan lorde beltz koipe-tsua. Behatz tartetik ihes egiten zion apurra itsasoan pausatzen zen, zaratarik atera gabe, inori ezer esan gabe. Laguntza eskatu nahi zuen, baina bere ahotsaren hegoak guztiz lohituta aurkitzen ziren, bere besoek lorde beltz koipe-tsua jasotzeko ahaleginetan indar

HILEKO GALDERA.

Erdi kaleko
eraikinetako
hormek,
urteko
balantzea egin
behar balute,
zer kontatuko
ligukete?

guztia galdu zuten, eta paradisu beltz hartako bakar-dadeak bere garretan ito zuen.

Itsasoa milioika gezur, milaka interes, ehunka sasi hizlari eta hamaika tona mantu beltzen hilerri bihurtu zen. Ezinak, ahaleginaren garrasiari hartu zion testigua, botere urrunak lo kuluxka gozoak burutzen zituen bitartean”.

Kontakizun horretako protagonista edozein izan daiteke, aurreko hitzak irakurri dituen oro. Muxiako hondartzan koka genezake edo Itzurunen bertan; hau da, gure hondartzan, azpeitiarrok uda partean konkistatzen dugun hondartzan. Ezin joan gaitezke inora, Itzurungo hondartzan geldialdi bat egin gabe. Ezinbestekoa dugu guztiz maitea eta beharrezkoa dugun lur zati horretan gure eskuak zikintzea.

Gabonak bezalako egun esanguratsuek askotan daramate berekin ezbehar bat, hutsune bat, negar malko bat. Kasu honetan lorde beltz koipe-tsua gure etxeetara sartzeko arrisku bizian aurkitzen da; azken finean zenbat etxetan pilatu ote dira uda partean, Itzurungo hondartzako hondar aleak? Ez dugu ba nahiko hurrengo hondartza garaian txankleta, toaila, gorputz eta arima lorde beltz koipe-tsuz josita ekartzetik?

Herritarrok, diskurtso teorikoarekin identifikatzeaz gain, praktikara eramateko badugu indarra, prestakuntza eta esperientzia. Beraz, sortu ditzagun boluntario zerrendak gure gogoetaren orri zurian, inoren zain egon gabe eta askatu ditzagun itsasoan preso gelditu diren errugabeen malkoak lorde beltz koipe-tsua garretatik.



diru laguntzak

Eusko Jaurlaritzak ez ditu lagunduko uztarria.com eta liburuxka biografikoak

Uztarriaren datuak

Argitaratzailea: Uztarria Kultur Koordinadora
Egoitza: Julian Elorza Hiribidea 4, 2.a ezkerre (Azpeitia).
 Telefonoa eta faxa: 943 - 15 03 58
Posta elektronikoa:
 uztarria@topagunea.com


Web orria:
www.uztarria.com

Posta kutxa: 227, Azpeitia
Inprimategia: Gertu
Tirada: 1.800 ale
Lege gordailua: SS-860/2000

aldizkari honen laguntzaileak



AZPEITIKO UDALA



Gipuzkoako Foru Aldundia



EUSKO JAURLARITZA Kultura Saila

Uztarria Kultur Koordinadorak ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizuna

• **Uztarria.com:** Behar beste puntu lortu ez dituelako ez du diruz lagunduko 2002an uztarria.com webgunea Eusko Jaurlaritzak. Iaz eskatu zuen Uztarriak aurrenekoz webgunerako diru laguntza Eusko Jaurlaritzari, (2002ko urtarrilean sortu baitzen webgunea). Baina, herri komunikabide bat delako ez da heldu Jaurlaritzak eskatutako puntuaziora.

• **LIBURUXKA BIOGRAFIKOAK:** Webgunek bezala, liburuxka

biografikoek (*Imanol Eliaseta Patxi Altuna* biografiak) puntuaziora heltzen ez direlako ez dute jasoko 2002ko diru laguntzarik Jaurlaritzatik. 2001ean, aldiz, 901 euroko diru laguntza jaso zen Eusko Jaurlaritzatik liburuxka biografikoentzat (*Joxe Takolo* eta *Angel Otaegi* biografiak). Aurten, nonbait, proiektu gehiago aurkeztu dira, eta puntu gehiago behar zen laguntza jasotzeko.

• **ALDIZKARIA:** 6.900 euro emango dizkio Uztarriari Jaurlaritzak.

albiste txikiyek

Otsailean 'Patxi Altuna' aurkezpena

Uztarria Kultur Koordinadorak laugarren liburuxka biografikoa aurkeztuko du otsailaren 1ean: Patxi Altuna jesuita eta euskaltzainari buruzkoa. Josune Etxeberriak idatzi du —azpeitiarra eta euskal filologoa; Altunaren ikaslea izana—. Aurkezpena eta gero, liburua herriko liburu-dendatan eta tabernatan izango da salgai, zazpi eurotan; Uztarriako bazkideek etxean jasoko dute.

sustatu.com Luistxo Fernandez (Codesyntax enpresa. Eibar)

WEB ONENA, LAGUNTZARIK GABE

Uztarria.com ondo pentsatutako produktua da. Diseinu xume eta funtzionalarekin, eta bizpahiru utilidade ondo pentsatukoekin. Teknologiarenekin sendoa, informazio eta interaktibitatean nabarmendu da. Euskarazko gune interaktiboena eta informatuena dira dudarik gabe. Herri proiektu bat, herri txiki batekoa izanda, Azpeitiko.

Euskara hutsezko webguneen bisita kopurua eta trafikorearen eskasia kontuan hartuta (Eustat-en EAEko internauten ohituren estatistiketan bi webgune euskaldun besterik ez

dira ageri, *Egunkaria* eta *Aurki*, zerranda luze batean), Uztarria.com-ek lortu duen audientzia azpeitiarra da, seguru aski, euskarazko produktu batek interneteko *share*-a lortzeko ahaleginean dagoen kasu positibo bakarra. Eta inpresioa daukat, Uztarriaren trafikora hurbiltzeko gaitasunik daukan atari euskaldunik nekez egongo dela.

Hala ere, 2002an sortutako euskal webgunerik interesgarriena, diru laguntzarik gabe geratu da euskara sustatzeko Kultura Sailaren deialdian. Zentzugabekeria bat.

612 bazkide gara jada

EGIN ZAITEZ BAZKIDE UZTARRIAN

Urtean 21,04 euro (3.500 pezeta) / Bestela harpidedun izan zaitezke, doan (kontu korrontearena ez beste gutzia bete)

IZEN-ABIZENAK: _____

HELBIDEA: _____

HERRIA: _____

KODE POSTALA: _____

TELEFONOA(K): _____

POSTA ELEKTRONIKOA: _____

KONTU KORRONTEKO ZENBAKIA (20 digitoak): _____

Julian Elorza Hiribidea, 4, 2.a ezkerre • 227 posta kutxa • Telefonoa eta faxa: 15 03 58 • Posta elektronikoa: uztarria@topagunea.com

Bertsoak eta tabernak berriro bat egin dute Azpeitian, Bertso Parrandaren bitartez; garai batean ohitura zenak indarra hartu du ekimen honekin, helburua bete delako: kalean bertso giroa sortzea

KANTA ZAK BERTSOLARI...

Enekoitz Esnaola

Xabier Euzkitzek berak esana da inoiz jaso duen laudoriorik politena neska batek bota ziola: “Hizketan ariko bazina bezala egiten duzu bertotan”. Bertsolari bakoitzak ditu bere dohainak, eta garai batean, gaur bezala, baziren jario ederra zuten bertsolariak. Baina bertotan egiteko era zen desberdina. Eta garai batean, gaur ez bezala, bertsoa elkarriketako edo solasaldiko osagaia zen, nolabait esanda; tabernatan ikusten zen hori, edozein unetan eta aldarretan hasten zirelako bertsolariak kantari. Adibide bat besterik ez da ondorengo gertaera, baina adierazgarria. Hau da, behin, Eusebio Eizmendi *Txapel* (1893-1969) eta haren lagunak Azpeitiko taberna batean zeudela, gazte bat hurbildu zitzaien eta burla egiten hasi zen. Txapeli ez gustatu gehiegi gaztearen portaera eta, oso zorrotz, honela esan zion esan beharrekoa: *Zure ofiziu eskandalu jartzen / oraindik badakigu harruak umiltzen / hemen oso zaila da tontuak abiltzen / zu're zahartuko zera ez bazera hiltzen*. Hots, bertotan bota ziola, braust, natural-natural.

Horrelaxe egiten baitzen garai batean tabernan bertotan, natural-natural. Hala dio Joxe Lizasok: “Orduan tabernatan ez zen izaten musikarik, eta jendeak bertso-

tan jarduten zuen. Espontanea zen. Adibidez, feri eguna iristen zenean, bailaratatik jendea etortzen zen, haietako asko ziren bertsolariak gustuko zutenak, eta afalondoren bertotan hasten ginen. Ez genuen beste ezeren beharrik dibertsiorako”.

Azpeitian, Tomas-enean egiten zuten asko (gaur Iratzar liburu-denda dagoen aurrean zegoen). Baserritarrak biltzen ziren tokia zen. “Neu ere sarri joaten nintzen hara —dio Joxe Lizasok—. Kalekoa naiz, baina, egia esanda, ez naiz behin ere kaletar sentitu. Taberna handia zen Tomasenekoa, eta famatua”. Galtxanean ere egiten zuten —gaur Bost taberna dagoen ondoan zegoen—, Anton-enean ere bai —Fideo dagoen tokian—, Pikuanen... “Non tokatzen ginen zen. Afalondoren, baten bat bazegoen sasia pizten zuena, guk segitu hantxe”.

Hain zuzen, taberna batean ezagutu zuten elkar Joxe Agirrek eta Imanol Lazkanok. Etxe Zurin, 1951n, San Sebastian egunez, Agirrek 24 urte zituela eta Lazkanok 17. Gogoan du une hura aurrean, *Joxe Agirre. Mozketaren maisua* liburuan kontatzen duen bezala: “Imanol Lazkano soldadu joan gabe zegoen. Haren koadrilak, Landetakoak, eta gureak, Izarraizpekoak, Etxe Zuriko tabernan egin zuten topo, edo egin genuen topo nahiago bada.

Haiek bazekiten ni bertotan ibiltzen nintzena eta nire lagunek ere bai Imanolek kantatzen zuena, eta han hasi ziren gutentatzen; tentatzen baino areago behartzen, ahariak bezala buruz buru jarri baintuzten ilunabar batean. Orduko laineza atakatzea izaten zen eta horretan saiatu ginen, baina inolako haserrikerik gabe. Nik artean oso gutxi ezagutzen nuen. Bertotan egiten zuela entzuna nuen, baina besterik gabe. Nik bertsoa kantatu ahala hasten ziren nire adiskide horiek oihuka eta builaka, eta gauza bera egiten zuten landetarrek Imanolekin”. Geroztik “lagun handiak” izan dira biak. Imanolek berak ere ondo gogoan du saio hura, “eta hasieran egurra ematen hasi baginen ere, bakoitzak bere kuadrila atzean zuela, azkenean bizkarretik heldu eta kafe bat hartzera joan ginen”.



Agirrek urtebete lehenago egin zuen jendaurreko bere aurreneko saioa: taberna batean, Arronan, Joxe Lizaso lagun zuela. “Azpeitian bazen José Blanco izeneko urnietar bat telefonista bezala lan egiten zuena. Arronaneko afari batera joango zela hitz emana zion Joxe Lizasori baina azken orduan ezinezkoa zitzaioela eta niri deitu zidaten”. Halaxe hasi zen Agirreraren karrera. Aurretik puntuka-eta jarduna zen, “erraztasuna” zuelako, baina jendaurrean bertotan lehen aldiz taberna hartan aritu ▶▶

1. Joxe Lizaso, bertotan taberna batean. Bera izan da tabernako bertso giroa ondoen eta gehien ezagutu duena, batez ere Landeta jatetxea eduki zuenean.

2. Joxe Luis Gorrotxategi eta Xebaxtian Lizaso. Aurrena Osintxutik Landetara etortzen zen; Xebaxtian han izaten zen, jakina; etxean.

3. Imanol Lazkano, epaile lanetan, Korralen, azaroan. Hantxe egin zen Bertso Parrandako lehendabiziko saioa, kategoriko giroarekin.

4. Imanol Lazkano, Manuel Uztapide, Iñaki Eizmendi ‘Basarri’, Joxe Lizaso eta Joxe Agirre, Kiruri aurrean, 1966ko ekainean. Makina bat aldiz egin izan dute bost horiek bertotan elkarrekin.



5. Eneko Iburguren 'Kurku', Orkatzen, M.A.K.-Behetarrak saioan.

6. Joxe Lizaso eta Joxe Agirre, bikote tipikoa.

7. Goxube taldea: Gorka Olalde, Beñat Lizaso eta Aritz Zubizarreta 'Xubi', Urtzin. Finalera sailkatu zen hirukotea, maila ederra emanda.



ZESTOAN ERE GAINEZKA. Zestoan ere izan da Bertso Parrandako saiorik; bat, hain zuzen ere. Abenduan izan zen, Uztapidenean, eta dena bete zen; 70 bat lagun bildu ziren saioa ikusteko. Argazkian, Beñat Lizaso kantari, Goxube taldeko kide gisa.

» zen. Eta gerora maiz aritu zen tabernatan. “Jai iluntzetako kontuak ziren horiek. Beti izaten ziren xaxatzen hasten ziren bertsozaleak inguruan eta guk ez genuen askorik behar izango. Saio horiek ez ziren kalean bukatzen, kaletik etxera bidean ere segitu egiten baikenuen”.

TOKI ZEHATZETAN. Joxe Lizasok dioenez, azpeitiarrak ez omen ziren asko bertsoan aritzen zirenak. “Izan ere, Azpeitian kalean ez zegoen orduan bertso giro handirik. Toki zehatz batzuetan zegoen, ez orokorrean. Hona etortzen ziren Juan Joxe Loidisaletxe errejidarraren aita Antonio Mari eta haren anaiak Pako, Sebastian, Bitoriano... Sasi-bertsolari azpeitiarrak baziren, zahar jendea batik bat, baina hauek bertso zaharrak kantatzen zituzten, ez bat-batekoak; gogoan dut *Praka haundi*-tarren aita Joxe Mari, bertso zahar asko zekizkielako. Hala ere, tarteka, trikili-trakala, moldatzen zituzten bertsoak, zaharrak berriekin nahastuz eta”. Bertsolariak naturalki aritzen ziren, “gai jakinik gabe baina bertsolari bakoitza bere joerarekin, bere gaiekin, eta tabernan jendea aspertzen ari zela ikusten bagenuen, ba ez zegoen arazorik: aldegin egiten genuen”, dio Lizasok.

Behin izan zuten, ordea, bertsolari batzuek arazorik, Laxaro Azkune akordatzen denez. “Orain dela berrogeitaka urteko kontua da. Neuk zortzi urte-edo nituen. Herriko festa batzuk ziren. Eta akordatzen

naiz Takolo Txikiyeneko taberna —gaur Egurtza dagoen tokian— leporaino zegoela bertsolariak entzuten. Baina halako batean alguazillak sartu ziren barrura eta bertsolariak isilarazi egin zituzten, eta errezeloa dut kanpora ere atera zituztela. Ez dakit justu zergatik. Baina orduan bertsolariaren halako irudi alproja edo marjinate bat hartu nuen”.

Laxarok badu entzuna tabernako beste liskar bat. “Ez zen Azpeitian gertatu, Errezilen baizik. Juan Joxe Loidisaletxeren aitona kantuan ari zen bere zazpi semeekin Errezilgo taberna batean. Taberna, lepo. Baina halako batean tabernariak aitona hari esan zion jendeak ez zuela ezer hartzen eta ea noiz isilduko ziren, joateko iradokiz bezala. Loidisaletxe aitona orduan erantzun zion gustura ez bazegoen ospa egingo zutela, eta, halaxe, bertsolari guztiak joan egin ziren tabernatik... eta atzetik ikusentzule guztiak. Hutsik geratu zen taberna”.

Joxe Lizasok Tomas, Pikua eta beste taberna batzuk aipatzen ditu, baina Azpeitian bertso giro apartekorik eduki duen tabernarik egon bada, hori Landeta izan da; eta, hain justu, Lizasok berak eduki zueneko garaian. 30 urte zituela hartu zuen, 1957an, Juli andrearekin batera. Bereziartua familiari hartu zioten, eta hamabi urtean eduki, 1969ko Santu Guztien egunean taberna dena erre zen arte; hantxe kiskaldu ziren hormatan zeuden

argazki handiak. Taberna baino gehiago jabetzea zen hura, jabetxe handia, “egunero ehun lagunetik gora bazkaltzen zutelako”, Joxeren semeak, Xebaxtianek esaten duenez. Normalean, ordea, afalostean egoten zen han bertso giroa, hango mahai luzearen inguruan. Eta Imanol Lazkanok dioenez, jendeak titulu bat jarri zion toki hari: *Landetako Unibertsitatea*. “Gauero mila istorio eta kontu entzuten zituen mahai hark”, dio Lazkanok. “Zortzi-hamarreko taldea izaten zen funtzioa ematen zuena eta beste guztiak entzule bezala joaten ziren. Nik neuk eliza baino gehiago ezagutzen nuen, amaren borondatearen kontra, hara joaten nintzelako lanetik irten-dakoan”.

HIZKUNTZA LANDUZ. Joxe Lizaso bera lanean izaten zen, mostradore atzean, “askotan letxe txarrean, baina barrurako; baina, tira, han lana benetan andreak egiten zuen”, berak dioenez, eta ez omen zuen han askotan kantatzen. “Ez zen etxean kantatzen amorratua”, dio Xebaxtianek. Landetako orduko bezeroek esaten dutenez, hauxe zen Joxeren aldarrearen seinale: neguan anoraka besapean bazekarren, malo; baina bizkarrean botata bazekarren, bale, orduan festa zuten. Bertso zaharrak kantatzen zituen asko Lizasok, Imanol Lazkanorekin batera, “eta Iberdrueroko zaintzailea zen Jorge hernaniar batekin batera, honek izugarriko bertso zahar pila zekizkielako”, Lazkano oroitzen denez. Azken batean, bertsolariaren bilgune izan zen Landeta, asko eta asko pasatu zirelako handik afari-legea egiteko eta kantuan aritzeko: ingurukoak ez ezik, Lazkao Txiki, Jon Azpillaga, Mitxelena, Jon Lopategi... “Baina nik uste han gehiago landu genuela adar-jotze kontu hori, hizkuntzaren ateraldi horiek, gauzei buelta ematen hori, bertsoa bera baino”, dio Imanolek.

Lizasok “ondo” deritzo *Landetako Unibertsitatea* titulua eduki izanak jabetxeak, “bertsoak entzuteko aukera eta bidea ematen zelako han”, baina bere ustez, hura ez zen bertso eskola. “Han zegoena bertso giroa zen. Horregatik ez zait gustatzen *unibertsitate* titulu hori”.

Tituluak titulu, bertsolariaren erreferentzia zen Landeta. Ez soilik taberna girarako, txapelketetarako ere bai. Izan ere, 1960. hamarkadaren bukaera aldera, hiruzpalau urtean, Loiola Herri Irratiko *Bertsolari Gazteen Sariketa* jokatu zenean, finala ez ezik beste saio guztiak Landetan izan ziren. “Larunbat arratsaldetan izaten ziren saioak, jangela handian —dio Xebaxtian Lizasok—. Akordatzen naiz Gorrotxategi bera nola etortzen zen saioetara kantatzera Osintxutik. Jende



“Tomas tabernan asko egiten genuen bertsoan, baten batek sasia piztuta”

Joxe Lizaso
(bertsolaria)

“Beti izaten ziren xaxatzen hasten ziren bertsozaleak, eta ez genuen asko behar”

Joxe Agirre
(bertsolaria)

“Landeta jatebxean bertsoa baino gehiago landu genuen hizkuntza, adar-jotzea”

Imanol Lazkano
(bertsolaria)

“Bertso Parrandan hiru ezuste egon dira: jendetza, errespetua eta maila”

Laxaro Azkune
(antolatzailea)

“Lehen pausoa nonbaiten eman beharra dauka bertsolariak”


Xebaxtian Lizaso
(bertsolaria)

“Ekimen ona izan da, baina txapelketa kutsua hartzen joan da”

Joxin Iturrioz
(parte-hartzailea)

“Behin ere jardun gabe nintzen jendaurrean, baina irtetera animatu nintzen”

Ander Urbieta 'Pou'
(parte-hartzailea)



ENEKOITZ ESNAOLA

LANDETA. Gaurko Bordatxo ondoan eduki zuen Joxe Lizasok Landeta jatebxea —bertan dago argazkian—. Eraikin berean. 1969-an dena erre zen. Hona Imanol Lazkanok eta Xebaxtian Lizasok 1990ean jatebxeari botatako bi bertso ('Joxe Lizaso' liburutik hartua):

Imanol Lazkano:

*Gogoratzeak ekarrizten ditia malkoan zoria.
Esan orduko garai artako kontuan naiz eroria.
Landeta aldeko taberna arek badu bere istoria.
Lujo aundirik etzuen baiña bazuen kategoria.*

Xebaxtian Lizaso:

*Nere atsegin aundiena zanan bertsoak entzutea,
ta pena, berriz, auek utzita goiz oera joatea.
Pena batekin dadukat orain nere barrena bete:
an entzundako bertso onenak aizeak eramatea.*

asko biltzen zen, eta bertsolari bakoitzak bere jarraitzaileak ekartzen zituen. Han grabatzen zen saioa, gero irratiz emateko, eta epaile ofizialak egoteaz gain, jendeak gero botoak eman zitzakeen irratira deituta, eta uste dut ibili zela jende bat irratira dei pila eginez...”.

Azpeitian bertsolaritza eten handi bat gertatu izan da, Lizaso, Agirre, Lazkano eta hauen belaunalditik ez delako beste belaunaldi bat sortu, hari eta orain Jokin Uranga, Leire Ostolaza, Beñat Lizaso, Urko Egaña eta hauena sortu den arte. Tartean daude Xebaxtian Lizaso edota

Euzkitze bezalako bertsolariak. Aurrena, batez ere, “aitaren inguruko bertso giroagatik” egin da bertsolari; bigarrena, honek ere berezkitasun apartekoa edukitzeaz gain, eskoletako txapelketek bultzatuta. Dena den, tartean ere izan da sasi-bertsolariarik eta bertsolariarik, Joxin Iturrioz-ek kontatzen duen bezala. “Gure adinekoak, berrogei urteren bueltan gabiltzanak ere aritzen ginen bertsoan. Gure kuadrilan dezente. Izan ere, lagun bat bagenuen bertsolaria, ez sasi-bertsolaria: Joxe Mari Altuna. Eta han joaten ginen Errezilera eta, Altunari kontrarioa aurkitzera”. Azpeitiarrekin ere jarduten zuten. “Behin, Inauterietan, geure kuadrilako hiruk beste kuadrila bateko beste hiruri erronka jarri genien: kioskoan lehia, goizeko ordubatean. Geu pixka bat lehenago hurreratu ginen eta arkupetan gelditu, ea haiek azaltzen ziren ikusteko. Iritsi ziren goizeko ordubatak eta batere ez. Ordu laurden egon eta aldegin egin genuen”.

ORAIN, ARRAKASTA. Eta orain, Bertso Parranda. Eta a zer-nolako arrakasta eduki duen! Azaroaren 8an hasi zen, Korralen. Tabernatan izan dira saioak. Bakoitzean bi kuadrila buruz buru. Kuadrila bakoitza hiru kidez osatuta, eta gehienak jendaurrean inoiz aritu gabeak. Erriarraitz Bertsozale Elkarteak antolatu du, eta harrituta gelditu dira arrakastarekin, Laxaro Azkune lehendakariak dioen bezala: “Lehiaketa hau zela-eta egin zidaten lehen elkarrizketan, gutxi gora-behera honelaxe erantzun nion kazetariari: ‘Tabernan hogeita hamarren bat ikusentzule biltzen badira eta bertsolariak ordubete inguruan ▶▶

▶ lasai kantatzeko aukera badute, ondo, helburua beteta'. Baina zer gertatuko eta tabernak puntaraino bete direla, eta hori ustekabea izan da. Eta beste ezustea: jendeak egundoko errespetuarekin entzun ditu saioak". Beste ezuste bat ere aipatu du: "Bertsolariek beraiek hartu dutena. Harritu egin dira eman duten mailarekin".

Joxin Iturrioz bera izan da partaideetako bat (Beti Gazte taldean); partaiderik beterranoena. Ez zuen irteteko asmorik baina... "Erniarraitzekoek deitu ninduten, ea laguntzeko prest al nengoen galdetuz. Nik baietz. Hiru egunera beste deia: partaideen zerrendan nengoela. Beno...". Ez da Joxin jendaurrean aritzen den horietakoa, eta "gustura" geratu da saioekin, batez ere Zestoan egin zuenarekin.

Ander Urbieta *Pou*-k ere irten du, M.A.K. taldearekin. "Jokin Urangak komentatu zizun Bertso Parrandaren kontua, eta halaxe animatu ginen. Gero pare bat aldiz joan nintzen bertso eskolara". Bera ere aurretik jardun gabea zen jendaurrean. "Behin gaztetan txapelketa batean parte hartu nuen, baina, bestela, ez dut jardun bertsoan jendaurrean. Lagunartean bai, lagunartean jarduten dugu. Lehen *Txitxas*-en lokalean biltzen ginen ostegun iluntzetan afaltzeko eta bertsoak kantatzeko".

Kategoriko giroa izan da Bertso Parrandaren inguruan. Saioak gauerdia aldera izan dira, eta, berotzeko, afaltzera joaten ziren parte-hartzaileak. "Jendea pixka bat urduri egoten zen afarian, baina trago bat

2003. urtean ere egingo al da?

● **Nolako arrakasta izan duen ikusita, aurtien ere egingo al da Bertso Parranda? Erniarraitzek berak ere ez daki. "Oraindik ez dugu egin balorazioa —dio Laxaro Azkune elkarte kideak—. Baina jendea ikusi dugu bertso gosez dagoela, ilusioa bada goela. Tabernak ere konforme geratu dira, ez da haientzat endredorik izan bertan saioak antolatzea, eta galerririk ere ez dute izan. Baina 2003an berriro egingo al den Bertso Parranda? Agian urtero antolatzen hastea arriskutsua izan daiteke".**

Badu aurreko lanik eta erronkarik Erniarraitzek, "ekimen honetan izan den jendea bertso eskolara arrimatzeari nahiko genukeelako eta dinamikak batean sartzea".



Urtzin egin zen saioa.

gehiago hartu eta halaxe *berotzen* ginen", dio Joxin Iturriozek. Ander Pouk, berriz: "Guk afarian gutxi hitz egin genuen saioaz. Afaritik saiora joan aurretik, ordea, bi taldeon artean ordu laurden batean bertsoan aritu ginen, puntuka".

LEHEN PAUSOA. Biek ondo pasatu dute Bertso Parrandan. "Ni —dio Pouk— urduri egon nintzen saioko egunean eta saioan zehar, eta burua benetan zuri neukan. Baina ez zait damutu irten izana, gustura jardun nuelako". Joxinen ustez ere giro ona egon da —"Korralen egin zen aurreneko saioa eta ordurako jada ikaragarritzko giroa zegoen"—, baina ikusi dio ekimenari halako puntu beltz txiki bat: "Ekimen ona izan da, baina aurrera joan den heinean, txapelketa kutsua hartzen joan da".

Abenduaren 27an jokatu zen finala —ordurako Uztarrria inprimategira eramana zen—, Goxube eta Erreka taldeen artean, eta finaleko sei bertsolarietatik bost azpeitiarrak ziren: Beñat Lizaso eta Aritz Zubizarreta *Xubi* (Goxube), eta Josu Azpillaga, Xabier Azpillaga eta Iñigo Gorrotxategi *Alabier* (Erreka). Haiek, eta beste ere bai, kontent amaitu dute. Xebaxtian Lizaso: "Bertsolaria nonbaiten eman behar du lehen pausoa, bestela ez dago jakiterik nolako bertsolaria den".

Beraz, Xebaxtianen pausoari segituz, kanta zak bertsolari, kanta zak hire herrian / kanta zak bertsolari, nahi duan neurrian...●

Daukagun **kultura maite** dugulako,
euskal eskola nazionalaren bidetik
mundu zabalera.

ikasberri

A Z P E I T I K O I K A S T O L A

loiola etorbidea, 26 - 20730 azpeitia - tel 943 15 12 46 - faxa 943 15 17 76 - ikasberri@ikastola.net

Ingelesek

ingelesez irakurtzen dituzte eguneko berriak



mayoría para reintegrar ya

ctor progresista considera que se han «invadido» las competen-

ONIO BRAVO. COUPISA. MADRID e conservador del Consejo General del dicial (CGPJ) impuso ayer su ajustada doce votos frente a nueve- para acor-

dar el réingreso inmediato en la judicatura de Javier Gómez de Llano, condenado en octubre de 1999 a quince años de inhabilitación espe- cial como autor de un delito continuado de pre- varicación d- tas a sablend- gecable y cu- sado cancela

progresista advirtió que en supone «una invasión regla- de las competen- Tribunal Supremo, orga- rechazó la vuelta automá- ex juez por entender que to del Gobierno fue desal-



Frantsesek

frantsesez irakurtzen dituzte eguneko berriak



Japoniarrek

japoniarrez irakurtzen dituzte eguneko berriak

ETA EUSKALDUNOK?

Euskaldun askok ere euskaraz irakurtzen dituzte eguneko berriak



Irakurri eguneko prentsa euskaraz!

Orain goizeko 08:00ak baino lehen jaso EGUNKARIA gustukoaren duzun lekuan. Orain merkeago.

Informa zaitez: Deitu 943 300 222 telefonora edo idatzi: harpidetza@egunkaria.com



datue

280 dira mendian, Lagun Onak Mendi Bazkunen bitartez, 2003. urterako federatuta dauden mendizale azpeitiarrak. Gaur egun Lagun Onak Mendi Bazkuna 600 bazkidek gora ditu.

dato historikue

138 dira, 1965ko urtarrilaren 23an, Pedro Parodi Musika Bandako zuzendariak udalari instrumentuak erosi beharra azaldu ziola.

esaldiye

“Globalizazioak ongizate egoera suntsitzen du. Ondorioz abantaila gutxi ditu”

Ignacio Romatet
(Geopolitikan aditua)

esaerie

“Haize askorekin sagardo eske handirik ez”

liburutik ttak

“Euskarak lehen aldiz izan zuen ofizialtasuna, epaitegiak barne, Nafarroako erresuman izan zen, bertako historiak hala erakusten duenez. Uste hori nuen nire irakurketen arabera, eta horren lekukotasuna agertzen digu Jimeno Juriok ere bere *Navarra. Historia del euskera* liburaren 54. orrialdean, bertan erabiltzen ziren hizkuntzak orokortasunean begiratuz. Beraz, ez nembilen oker”.

Juan San Martin ‘Giza eskubi-deen inguruan’. Elkarlanean argitaletxea. 2000. urtea.

kontue da... Imanol Elias Odriozola (idazlea)



SEBASTIAN DONEAREN EGUNA

Indar berezia du herrian Sebastian donearen egunak eta bezperak. Agian orain bezalako indarrak gabe, baina, Azpeitia herri denetik seguruenik, garrantzia izan du, gogoa izanik gaur egun parrokia dugun eliza —monastegia herria sortu aurretik—, bere ize-nekoa dela: Soreasuko Sebastian donea.

Beranduago sortutako jaiak ditugu uztaileko herri jaiak, Loiolako Inazio donearen gogoan, 1609an hasitakoak bera beatifikatzean eta elizak santutzat hartutakoan indartuak. Azpeitiarrak, aurrez, Sebastian donearen eguna zuten herri jai handia, horrela aipatzen da, behin eta berriz, garaiko agiri zaharretan: herriko agintariak jai hau antolatzen ahalegintzen zirela.

Ohitura zen ospakizunetan zezenak kalera-tzea herritarrek jolasteko, baita Sebastian donearen ospakizunean ere: itxituraz prestatuta-

ko tokian edota sokamuturra kaleetan. Elizkizunak ere ez ziren faltako, prozesioa egingo zen, dantzariak parte hartuz eta herriko sarre-rako dorretik mosketeekin tiroak botako ziren.

Baina geroago, ez zen nonbait egokia irudituko urtarrilaren 20a asteguna bazen, lana utzi eta jai giroan murgiltzea; beraz, jai ondo-rengo lehen igandean antolatzen zen. Nahiz eta patrioiaren egunean agintariak mezarara joan korporazioan. 1870an, ordea, apaizen eskaerari erantzunez ohitura aldatu zen. Herriko agintariak eta parrokiako apaizak herritarrei patrioiaren egunean mezarara joateko deitzen ahalegindu ziren eta gainontzeko ospakizunak ere egun horretan antolatu ziren. Auskalo noiz-tik izandako ohitura bat moztu zen horrela, hau da, Sebastian donearen eguna asteguna zenean jai ondo-rengo igandera aldatzea.

garai bateko Azpeitiye ...Joxe Azkaratek kontatua

Jaietako giroa eta ohiturak

Urteen poderioz Azpeitiko festetako giroa aldatzen joan da, baina badira mantendu diren usadioak ere

Nerea Aranburu

Beti esan izan da Azpeitia oso herri festa-zalea dela. Herrian beti egin dira festak, baina, urteak igaro ahala, jaietako giroa eta ohiturak aldatuz joan dira. Joxe Azkarate ondo gogoratzen da garai haietako jaiiez. “Gu gazte-ak ginela beste giro bat egoten zen herriko festetan. Ez bakarrik giroa, dantza ere askoz gehiago egiten zuen jendeak. Gaur eguneko festetako giroak ez dauka zerikusirik gu gazte-ak gineneko festa giroarekin, gaur egun dena desberdina da. Eta herriko festa desberdinak ere, Sansebastianak, Inauteriak eta abar aldatu egin dira denboraren poderioz”.

Sansebastian jaiak gertu direla eta, Joxe Azkaratek bera gaztea zeneakoak dakarzki gogora: “Gu gazteak ginenean, Sansebastian egunean meza nagusia izaten zen goizeko hamarretan. Eliza dena jendez betetzen zen. Meza bukatu ondoren, jaietako beste ekitaldi garran-

tzitsu bat izaten zen: sokamuturra”. Joxe Azkarate zezenzalea da. Baina ez sokamuturra soilik, zezenketak ere gustuko ditu. “Zezenak denak ditut gustuko”, azpimarratzen du Joxek.

SOKAMUTURRAZ. Sokamuturra ekitaldi jendetsua izan ohi zen orduan ere, herritar askok hartzen zuelako parte. Azpeitia festazalea eta zezenzalea beti izan baita. “Nik beti eza-gutu dut herriko festetan sokamuturra. Hala ere, garai hartan orain baino jende gehiago ibiltzen zen. Orduan sokamuturrean ateratzen ziren zezenak ere indar gehiagokoak izaten ziren; gutxiago ibilitakoak izaten baitziren. Gaur egun ateratzen dituztenak indar handie-girik gabekoak direla uste dut”.

Gaur egun ezagutzen dugun sokamuturrean, herriko kaleetako ibilbidean hainbat alditan aldatzen da zezena. “Lehen ez zen orain bezain-beste aldatzen, gutxiagotan baizik. Damaso ingurutik ateratzen zuten eta gero plazatik



Azpeitiko jaietan aspalditik izan da sokamuturra kalean. / AZPEITIA HISTORIAN ZEHAR LIBURUA

● **JAIEGUNA.** 1870. urtean ohitura zaharra aldatu zen: urtarrilaren 20an egingo ziren ospakizunak, asteguna edo igandea suertatu

Ohitura zaharra bizirik dugu eta aberastasun bat dela esan behar. Elizkizunak berdin jarraitzen du, dantzariak ez bada ere, zezena kaleetan... Eta gainontzekoa? Danbor zarata handiagoa orain, parranda zaleak ere bai, biztanle gehiago garez...

abizena

ALTUNA


● **Banaketa semantikoa.**

- Andu- Antu-: andura.
- -na: lekua.

● **Esanahia.** Andura edota akamailuaren lekua.

● **Armarria.**

Zilarrezkoa, hiru lehoi gorri arrapalan eta ongi ordenatuta jarriak.




● **Abizenaren kokapena.**

- Urrestilla.
- Loiola.
- Urnieta.
- Elgeta.
- Bergara.
- Zumarraga.
- Abaltzisketa.
- Bilbo.

● **Abizenaren hedapena.**

- Urretxu (1624).
- Eskoriatza (1772).
- Elgoibar (1692).
- Abaltzisketa (1698).
- Tolosa (1717).
- Azpeitia (1738).
- Donostia (1750).
- Arrasate (1795).
- Lazkao (1797).
- Amezketa (1774).

'www.paisvasco.com/heraldica'. webgunetik hartua.



Sokamuturra Erdi kalean. / AZPEITIKO JAIK LIBURUA

“ Lehen sokamuturrean ateratzen ziren zezenek indar gehiago zuten”

Joxe Azkarate



pasatu ondoren, Errebalera iristen zenean han aldatu egiten zen. Bigarren aldaketa, berriz, Iturri-Txiki inguruan izaten zen”, dio Joxek.

GAUPASARIK EZ. Gaur egun, festetan oso normala da gau-pasa egitea, “baina guk ez genuen horrelakorik ezagutu. Nahiz eta herriko festak izan, gaueko hamar eta erdiak, hamaikak heltzen zirenean etxera joan behar izaten genuen, hurrengo egunean lanera joateko”. Joxe bera Agirre lantegian ibili zen lanean urte askoan eta lanorduak ere ez ziren gaur egunekoak, hamar eta hamalau ordu sartzen baitzituzten askotan lanean. “Lantegia itxi arte Agirreneko tailerrean jardun nuen lanean. Tallista bezala egiten nuen lan. Urte haietan lanbide hori oso hedatua zen herrian, eta orduan ez zegoen langabeziarik”, dio Joxe Azkaratek.

komunikabideak

ALFONSO USSIAK ESANAK

Alfonso Ussia ABC egunkariko zutabegilearen hitzak: “*Grupo Correo* [DV, *El Correo*...] ABC-ren bide ideologiko eta sozialetan mugitzen da. ABC-k bezala nazionalismoak gobernatutako Vascongadoak defenditzen ditu. Espainiaren batasuna, Konstituzioa eta Koroari leialtasuna”. Eta hala ere...

gertuko pasadizue

**SUAK HARTUTAKO
DILIJENTZIA**

● **IGNACIO ARTETXE:** "1926ko otsailaren 22a, Urolako trenbidearen inaugurazio eguna, ahaztezina izan zen bertan izateko aukera izan genuenontzat. Hainbeste denbora egon behar izan genuen zain...; horregatik, tren errealitate bihurtu zenean, gu guzion barruan zirrarak eztanda egin zuten. Pozez gainezka geunden azpeitiarrak. Inaugurazioko ekitaldiak amaitu zirenean, gaua heldu zenean, norbaitek dilijentzia bati su eman zion, eta dilijentzia honek suz inguraturik agurtu zuen herria bere azken bidaiari".

'Urolako Trena 1926-1986' liburutik hartua. Azpeitiko Udalak argitaratua. 2002. urtea.



Urolako trena 1926-1986

Dilijentzien zalditegia ostatuan.

Ioragintza

**POINSETIA EDO
PAZKUKO
LOREA**

Poinsetia, Gabon garaian etxe askotan ikusten dugun hosto gorriko landarea da. Pazko lorea bezala ere ezaguna da. Landare honek irauteko honako gomendioak jarraitu beharko dira:

● **Behean ura.** Ura jarri lorontziaren behealdean eta ordu erdi batez eduki; gero ura kendu.

● **Lainoztatu.** Astean bi aldiz urarekin lainoztatu behar da.

Irene Altuna Ioradenda

osasune Julian Bereziartua (medikua)



SUKARRA ETA OSASUNA (I)

● **38.**
Gorputzak
38 gradu
baino
gehiago ez
ditu behar

Sukarra, burmuinean ditugun zentro zenbaitek kontrolatzen edo baldintzatzen duen gorputzeko fenomeno bat da. Inguruneak, galdula endokrinоек, infekzioek, intoxikazioek eta aipaturiko zentro horien hutsegiteek alda dezakete; hala ere, gehienetan, gizakiaren organismoko infekzioek sortzen dute.

Gorputzaren temperatura normalak 38 gradu baino gehiago ez ditu behar; besazpian edo izterondoan hartzen bada 37 gradu. Sukarraren ordeztasuna eta hipertermia hitzak ere erabil daitezke. Egoera normalean, gorputzaren temperaturak ziklo uhindua du: baxuena goizeko hirurak aldera eta altuena arratsean.

Sukarra bera bezain garrantzizkoa, sukarraren bilakaera da: egunaren ordu ezberdinetan nola eboluzionatzen duen ikustea. Horregatik, eritetxeetan, tenperaturaren grafikoa egiten zaie gaixo guztiei. Gehienetan, nahikoa izaten da egunean bi aldiz hartzea baina batzutan gehiagotan hartzea ona izaten da. Eta goizeko hirurak aldean ez bazaie hartzen, ez ikaratzeagatik edo ez molestatzeagatik izaten da.

Sarritan, oso samurra dirudien infekzioak, amigdalitis edo anginetakoa adibidez, temperatura altuak ematen ditu; tuberkulosiak, aldiz, 37 graduz gainetik bi edo hiru dezima bakarrik ematen du.



KALITATEA ZURE ZERBITZURA

Altamira Auzoa z/g
20720 AZKOITIA (Gipuzkoa)
Tel.: 943 85 21 74 / 943 85 2265
Fax.: 943 85 28 67
E - mail: azkoitia@urola.hezitek.net

Perdilegi, 2
20730 AZPEITIA (Gipuzkoa)
Tel.: 943 15 02 28 Fax.: 943 81 16 94

- DBH
- BATXILERGOAK
- HEZIKETA ZIKLOAK

Perdilegi, 3
20730 AZPEITIA (Gipuzkoa)
Tel.: 943 81 26 65 / 943 81 37 70
Fax.: 943 81 66 20
E - mail: azpeitia@urola.hezitek.net



**AZPEITIKO IKASTOLA
KARMELO ETXEGARAI**

HAUR HEZKUNTZA-LEHEN HEZKUNTZA

KALITATEZKO EUSKAL HEZKUNTZA

Euskal Herria, 50
Tel.: 943 812697 - Fax.: 943 150830
E-mail: keikastola@jet.es

20730 AZPEITIA
(Gipuzkoa)

ATERBEA IREKITZEAR


Xoxoteko aterbeak 2000ko irailean itxi zituen atea. Kanpoa eta barrua berritu ondoren, Lagun Onak Mendi Bazkunak hilabete honetan irekitzeko asmoa du

Oreia Aranburu

Edozein mendizalarentzat eta azpeitiarrentzat erreferentzia leku bat izan da beti Xoxoteko aterbea. Edozein jai egunetan, Izarraitzera igo eta aterbera sartu-irtena egitea ohitura bihurtu izan da askorentzat. Hala ere, azken bi urte hauetan atea itxita izan ditu aterbeak. Arrazoiak: Xoxoteko aterbeak, mendi aterbe bezala funtzionatzeko, ez zituela Osasungintzak eskatutako baldintza guztiak betetzen.

Oraindik irekitzeko eguna zehaztu gabe badago ere, segurutzat jotzen da urtarrilean berriro irekiko dituela atea Xoxoteko aterbeak. Lagun Onak Mendi Bazkunako lehendakari Josu Eizagirrenen esanetan, "jada urte bukaerarako ia dena prest zegoen. Baina, kontu batzuk tarteko, denbora luzatu egiten da. Hala ere, urtarrilean irekitzea espero dugu".

ERABERRITZEA. 1999. urte inguruan, Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailekoak herrian zeuden taberna, jatetxe eta beste antzeko lekuetan ikuskapenak egiten ibili ziren. Hori bera egin zuten Xoxoteko aterbean eta zenbait akats aurkitu zituzten. Besteak beste, aterbean egon



MAJE LARRAÑAGA

SUKALDE BERRIA. Aterbean berrikuntza lan handienak barruan egin dira: komun berriak. Beheko solairuko zoru guztia berritu da. Sukaldea dena berritu da. Barrua margotu da, eta tximinia berritu da —ura berotzeko eta berogailuaren lana egingo du—.



MAJE LARRAÑAGA

TEILATUAN LEIHOAK. Xoxoteko aterbean teilatu berria egiteko teilak zaharrak kentzen mendi elkarteko kideak ibili ziren, ekainaren 29an. Gero teilatua oso-osorik berritu egin zen. Teilatuan gainera, leihoak ireki dira, jangela eta logela argitsuagoak izan daitezten.

zitekeen jende kopuruarentzat ez zeuden behar beste komun eta dutxa. Sukaldean ere akats nabarmenak aurkitu ziren. Biltegi txiki eta desegokiak zeuden eta hezetasuna nabaria zen. "Aterbean aldaketa handiak egin dira. Osasun Sailak eskatzen zituen aldaketak, eta beste batzuk ere bai". Hemendik aurrera, Xoxoteko aterbean 20-25 lagunek lo egiteko lekua egongo da. Komunak eta dutxak lagun kopuruaren arabera jarri di-

ra; legeak, hamar laguneko komun bat eskatzen du. "Behan komunak eta dutxak daude, eta aterbeko zaindaria errentzat ere komuna eta dutxa jarri behar izan dira", dio Eizagirrek.

Aldaketa handienak sukaldean egin dira, oso-osorik berritzatu baita. Bestetik, aterbe osoa margotu egin dute eta teilatua ere berritu egin da.

Orain dela hemezortzi urte, maiatzaren 27an, Xoxoteko egunean, inauguratu zen ater-

Zaindari posturako deialdia

● Izarraitzen kokaturiko Xoxoteko aterbearen eraberritze lanak bukatzeaz daudela eta, bertako zaindari postua betetzeko deialdia zabaldu zuen Lagun Onak Mendi Bazkunak abenduaren 9an. Izen-emateko azken eguna, berriz, urtarrilaren 15ean izango da. Zaindari posturako honako eskakizunak bete beharko dira: batetik, euskara menperatu beharko da eta bestetik, elikagaiak erabiltzeko agiria eduki beharko da. Elikagaiekin lanean jarduteko agiria, lehen Osasun Sailak bideratzen zuen, baina gaur egun, enpresa pribatuak dira agiri hori bideratzen dutenak. Pare bat eguneko ikastaroa egin behar da agiria eskuratu ahal izateko eta ikastaroak herri hauetan ematen dira: Bilbo, Donostia, Oiartzun, Elgoibar eta Azkoitia, besteak beste. Postua betetzeko, ostalaritza-sukaldaritza munduan ezagupenak izatea, mendian eskarmentua edukitzea eta antzeko lanetan esperientzia izatea baloratuko dira. Norbaitek Xoxoteko aterbeko zaindari postua lortzeko interesa balu, bere datu guztiak, kurrikuluma, egungo argazki bat eta elikagaiak erabiltzeko agiriaren fotokopia bat Azpeitiko 301 posta kutzara bidali beharko ditu.

bea. "Bai ireki zenean eta baita orain ere, bi helburu nagusi ditu. Alde batetik, mendira joaten diren mendizaleei zerbitzua ematea, eta bestetik, eskoletatik joaten diren umei zerbitzua eskaintzea, izadiarekin lotura izan dezaten". ●

2003rako proiektuak

mendi gida

Inguruko ibilbideak

- **BAZTERRAK.** Herriko bazterrak hobeto ezagutzeko eta Lagun Onak Mendi Bazkunarekin batera egingo da.
- **IBILALDIAK.** Hogei bat.
- **KOLORETAN.** Koloretan eta formato txikikoa.
- **PRAKTIKOA.** Infografia, datuak eta abar jasoko ditu.



'literatuzta'

Urtean bi gehigarri

- **HELBURUA.** Herrian sortzen den euskarazko literatur uzta- ren leihoa izatea da *Literatuzta*-ren xedea.
- **ZENBAKIAK.** Urtean bi zenbaki, aldizkari barruan banatuz.
- **ORRIALDEAK.** 32-36 izango ditu *Literatuzta*-k.
- **FORMATOA.** Txikia. Kolore batekoa.

efemerideak

Mendeetan egunez egun zer

- **LIBURUA.** Azpeitiko mendeetako efemerideak jasoko ditu.
- **EGILEA.** Imanol Eliasek egin eta idatzitakoa.
- **FORMATOA.** Formato txikikoa; 400 bat orrialde.

herri aldizkaria

Aldaketa txiki batzuk

- **FUNTSEAN BERDIN.** Iaztik diseinu eta kazetaritza eredu berria du, eta, funtsean, berdin jarraituko du. Atal edo egile berri batzuk sartuko dira urtean zehar (batzuk martxan dira).
- **IRITZIA.** Pako Aristik atsedean bat hartuko du, bere proiektuei hobeto heltzeko, eta haren partez Manex Beristain hasi da orrialde bateko iritzia edo komentarioa egiten.
- **JAKINGARRIAK.** Aldizkariaren sorreratik bertatik hilerio fin- fin euskarari buruzko zutabea idatzi ostean, Aitor Arrutik eta Arantzazu Azpillagak utzi egin dute, eta zutabe haren tokian abizenen jatorria-eta jorratzen hasi da Uztarrria.
- **BESTERIK.** Argazkien atal berri bat sartuko da laster (toki baten lehengo eta oraingo argazkiak parez pare jarritz), den- bora-pasa...

UZTARRIA, PROIEKTU E

Uztarrria

Uztarrria Kultur Koordi- nadoraren komunika- zio proiektuak ekimen berriekin abiatuko du 2003. urtea. Ekimen berrien artean nagusienak mendi gida, *Literatuzta* eta efemerideen liburu-rua izango dira. Eta noski, iaz martxan jarri ziren webgunea eta aldizkari berritua ere komun- ikazio proiektuaren baitan izango dira aurrean ere. Herrian arlo honetan dauden gabeziak eta beharrak kontuan hartu ditu Uztarrria proiektu berriei heldu ahal izateko.

Mendi gidaren helburua, herri-ko bazterrak hobeto ezagutzea

Kultur Koordinadoraren komunikazio proiektuak 2003ari ere asmo berriekin ekingo dio: literatura gehigarria, mendi gida, efemerideen liburu...

da. Lagun Onak Mendi Bazku- narekin elkarlanean egingo du Uztarrria, eta udaberri aldera argitaratzeko asmoa du.

Uztarrria Kultur Koordinadoraren beste ekimen berria *Literatuzta* izeneko literatura gehigarr-ia da. Gehigarriaren helburu nagusia, Uztarrria herri aldizka-riaren osagarri, herrian sortzen den euskarazko literatur uzta-

ren leihoa izatea da. Azken ba- tean, literatura generoei lekua egin nahi zaie gehigarriari: poe- siari, narratibari, antzerkiari, baita bertsolaritzari.

Uztarrriaren aldizkarian eta uztarrria.com-en aldaketa ba- tzuk izango dira. Urte berriaren hasiera honetan uztarrria.com webguneak lehen urtea bete du. Aldizkariak ere urtebete

egin du diseinu eta kazetaritza eredu berriarekin. Bien harrera oso ona izan da eta Uztarrria hobetzen segitzeko asmoa dauka.

Liburu biografikoen proiektua- ri dagokionez, aste gutxi barru aterako du laugarren eta orain- goz azken biografia: Patxi Altu- na euskaltzaina eta jesuitare- nari buruzkoa.



Jakingarriak

Jatorriak
Garate. 943 91 34 56. Bertako plater berriak, jeltzako emenda, berriak...
Juantea. 943 91 34 56. Bertako plater berriak, jeltzako emenda, berriak...

Aluboa
Borda. 943 91 34 56. Bertako plater berriak, jeltzako emenda, berriak...

Erakik historikoak
Garate. 943 91 34 56. Bertako plater berriak, jeltzako emenda, berriak...

Partzialak
Juantea. 943 91 34 56. Bertako plater berriak, jeltzako emenda, berriak...



15. libidea

Historia polita daukan teoria

Honegatik...
 Honegatik...
 Honegatik...



uztarria.com

Elementu berriak gehitzen

- **BEREZITASUNAK APROBETXATU.** Dinamikotasuna, irudiak, multimedia (bideo laburrak, audioa, grafikoak...).
- **HERRIRATU.** Lanabes digitalari dinamikotasuna eta zentzua ematen dion sare soziala osatzea beharrezkoa da, taldeek ere beren albisteak-eta zuzenean sartzeko.

egunkaria

Bailaran euskarazko egunkaria?

- **ASMOA.** Uztarria, Urola-Kostako beste sei herri aldizkariekin eta *Euskaldunon Egunkaria*-rekin batera, eskualdean euskarazko egunkaria sortzea aztertzen ari da.

ERRIEKIN

eurotan

- **2003.** Uztarria Kultur Koordinadoraren 2003. urterako komunikazio proiektuaren aurrekontua 2002. urtekoaren antzekoa da: 92.000 eurokoa.

BAZKIDEAK GEHITZEN. Uztarria Kultur Koordinadorak aurrea atara izan dituen ekimen berriak bazkideen artean banatu ditu, eta aurrerantzean ere halaxe egingo du. Bazkideak gehitzen joateko asmoa ere badu Uztarriak; iaz, urte bukaerarako 600 bazkide egiteko helburua jarri zuen —aurretik zituenak baino ehun gehiago— eta lortu ere lortu ditu, 612 bazkideekin bukatu baitu 2002. urtea. Bazkideek, 21,04 euroko urteko bazkide-tza kuotaren truke, herri aldizkariaren 11 zenbaki, liburuak eta *Literatuzta* jasotzeko aukera izango dute aurten. 700 bazkidera heltzeko helburua jarri du Uztarriak. ●

2003. urte berri on!
oparidenda

erdi kalea, 1



telefono zenbakiyek

ERAKUNDEAK - TOKI

PUBLIKOAK

Udaletxea	15 72 00
Udaltzaingoa	15 13 13
Suhiltzaileak	112
Azpeitia Lantzen	15 71 83
Iraurgi Lantzen	85 11 00
Nekazal Bulegoa	81 24 85
Iturriziki Ludoteka	15 11 79
Zapo Txoko / GIB	15 71 61
INEM	15 04 02
Kiroldegia	81 30 69
Igerilekua	81 41 21
Ertzaintza-Azkoitia	85 10 00
Aitonena I	81 51 71
Aitonena II	81 23 89
Epaitegia	81 25 55
Ingurugiro Etxea	81 24 48

OSASUNA

Anbulategia	81 51 00
Anbulategia-Iarrialdiak	81 12 01
Asepeyo	81 44 00
Gurutze Gorria	81 32 97
DYA-Donostia	46 46 22
SOS Deiak	112

KOMUNIKABIDEAK

Uztarrria herri aldikaria	15 03 58
Azpeitian Zer?	81 11 00
Deia (berriemailea)	72 57 75
DV (berriemailea)	15 09 94
Egunkaria	943-30 02 22
Gara (Herriak Saila)	943-31 69 99
Arrate Irratia (berriemailea)	81 26 32
Loiola Herri Irratia	81 44 58
Euskadi Irratia	943-01 23 00
Kaito Telebista	81 53 35

ALDERDI POLITIKOAK

EAJ - PNV	81 55 70
Batasuna	15 12 15
EA	81 00 11

SINDIKATUAK

ELA	81 34 46
LAB	15 13 56
EHNE	81 39 28

IKASTETXEAK

Betharram	81 16 68
Ikasberri	15 12 46
Iraurgi	81 02 10
Jesusen Alabak	81 22 49
Karmelo Etxegarai	81 26 65
Milagrosa	81 63 80
Urola BHI	15 02 28

KULTURA - EUSKARA

Baite Euskara Elkarte	[oraindik ez]
Euskara Patronatoa	81 45 18
Udal Euskaltegia	81 19 47
AEK	15 10 89
EHE	15 10 89

Udal Liburutegia	15 71 95
Loiolako Liburutegia	81 65 08
Uztarrria Kultur Koordi.	15 03 58
Antxieta Etxea	81 35 40
Kontseilua	943-59 12 00

BESTERIK

UGLE (Urolako gay-lesbia.) 273 posta

Euskaltel-informazioa 900-84 00 65

Telefónica-informazioa 1003

farmaziyek gauzez

URTARRILAK 3-15-27

Zulaika. 15 03 34

URTARRILAK 4-5-16-28

Aranburu. 81 13 50

URTARRILAK 6-7-22-23-24

Ruiz (Azkoitia). 85 19 66

URTARRILAK 8-9-10

Gisasola (Azkoitia). 85 12 35

URTARRILAK 11-12-20-21

Jaen (Azkoitia). 85 06 60

URTARRILAK 13-18-19-30

Etxebeste. 81 59 74

URTARRILAK 14-31

Garcia. 81 12 74

gune publikuek irikite

UDALETXEA

Astegunak: 9:00-13:30

Larunbatak: 9:00-13:00

IXPIXIOA

Egun osoz irekita

IGERILEKUA

Astelehenak: 14:00-21:00

Beste astegunak: 7:00-21:00

Larunbatak: 10:00-13:00, 16:00-20:00

Igandeak: 9:00-13:00

Kanpokoa: Ekaina arte itxita

KIROLDEGIA

Astelehenak: 9:00-13:00, 15:00-21:00

Beste astegunak: 15:00-21:00

Larunbatak: 10:00-13:00, 16:00-20:00

UDAL LIBURUTEGIA

Astegunak: 10:00-13:00, 16:00-20:00

Aste Santuan, udan (abuztuan itxita) eta Gabonetan: astegunetan, 9:00-13:00

autobusen ordutegiak

JOATEKO

AZPEITIA-ZESTOA-DONOSTIA

Astegunak: 6:50 (1), 7:40 (1), 8:10 (3), 9:00 (1), 10:00, 13:10 (1), 14:00 (1), 15:10, 16:10, 18:45 (2), 19:45 (2)

Larunbatak eta abuztuko astegunak: 7:50, 10:00, 13:40, 15:10, 16:10, 19:15

Igandeak eta jaiegunak: 15:10, 19:15

Enpresa: La Guipuzcoana

Oharrak: 1: Eskola egunetan 'Este'-tik pasatzen da; 2: Sarrera Amaratik; 3: Eskola egunetan soilik

AZPEITIA-EIBAR-BILBO

Astegunak: 6:30, 13:00, 18:30

Larunbatak: 9:30, 14:30, 18:30

Igandeak eta jaiegunak: 9:30, 19:30

Enpresa: Pesa

AZPEITIA-EIBAR-BILBO

Astegunak: 6:35, 13:30

Enpresa: Piper Unibertsitate Elkarte

AZPEITIA-AZKOITIA

Astegunak: 6:55, 7:25, 7:50, 8:25, 9:25, 9:35, 10:15, 10:25, 11:25, 11:50, 12:25, 13:25, 14:25, 14:35, 15:25, 16:25, 16:35, 17:25, 18:25, 19:15, 19:20, 19:25, 20:25, 22:25

Asteburuak eta jaiegunak: 7:00, 7:40, 8:40, 10:15, 10:40, 11:20, 12:45, 13:20, 14:40, 16:40, 17:05, 17:20, 18:40, 19:15, 19:35, 19:40, 21:35, 21:40

Enpresa: EuskoTren

AZPEITIA-ZESTOA-ZUMAIA

Astegunak: 6:30, 7:10, 8:15, 9:10 (1), 10:10, 11:10, 12:10, 13:10, 14:10, 15:10, 16:10, 17:10, 18:10, 19:10, 20:10, 21:10

Asteburuak eta jaiegunak: 7:25, 9:25 (2), 10:25, 11:45, 12:25, 13:45, 14:25, 16:25, 17:45, 18:25, 20:25, 21:25, 22:05

Enpresa: EuskoTren

Oharrak: 1: Aizarnazabaldik pasatzen da; 2: Larunbatetan Aizarna-zabaldik pasatzen da

AZPEITIA-ZESTOA-ZARAUTZ

Astegunak: 6:40, 8:30, 10:40, 13:25, 15:10, 18:10

Asteburuak eta jaiegunak: 15:40, 18:10, 20:10

Enpresa: EuskoTren

AZPEITIA-ZUMARRAGA (hospitala)

Astegunak: 6:55, 8:25, 10:25, 12:25, 13:25, 14:25, 16:25, 18:25, 19:25

Asteburuak eta jaiegunak: 7:40, 8:40, 10:40, 12:40, 14:40, 16:40, 18:40, 19:40

Enpresa: EuskoTren

AZPEITIA-ERREZIL-TOLOSA

Astegunak: 6:55, 13:55

Asteburuak eta jaiegunak: 6:55, 11:10

Enpresa: EuskoTren

GARRAIO ENPRESEN EDO ELKARTEEN TELEFONO ZENBAKIAK

Aldalur	85 27 18
EuskoTren	15 06 77
La Guipuzcoana	85 11 59

ITZULTZEKO

DONOSTIA-ZESTOA-AZPEITIA

Astegunak: 7:50, 8:50, 11:05, 12:05, 13:05 (1), 14:05 (1), 15:05, 17:30, 18:30 (1), 19:30 (1), 20:00 (3), 20:30

Larunbatak eta abuztuko astegunak: 8:50, 12:15, 14:30, 16:00, 18:00, 20:00

Igandeak eta jaiegunak: 18:00, 20:00

Enpresa: La Guipuzcoana

Oharrak: 1: Eskola egunetan 'Este'-tik pasatzen da; 3: Eskola egunetan soilik

BILBO-EIBAR-AZPEITIA

Astegunak: 10:30, 14:30, 21:00

Larunbatak: 9:30, 14:30, 21:00

Igandeak eta jaiegunak: 9:30, 12:30, 21:00

Enpresa: Pesa

LEIOA-BILBO-AZPEITIA

Astegunak: 14:00, 20:00

Enpresa: Piper Unibertsitate Elkarte

AZKOITIA-AZPEITIA

Astegunak: 6:30, 6:45, 7:00, 8:05, 8:15, 9:00, 10:00, 10:30, 11:00, 12:00, 13:00, 13:15, 13:45, 14:00, 15:00, 16:00, 17:00, 18:00, 19:00, 20:00, 21:00

Asteburuak eta jaiegunak: 6:45, 7:15, 9:15, 10:15, 11:00, 11:35, 12:15, 13:35, 14:15, 15:30, 16:15, 17:35, 18:00, 18:15, 20:00, 20:15, 21:15, 21:55

Enpresa: EuskoTren

ZUMAIA-ZESTOA-AZPEITIA

Astegunak: 6:00, 6:30, 7:00, 8:00, 9:00, 10:00, 11:00, 12:00, 13:00 (1), 14:00, 15:00, 16:00, 17:00, 18:00, 19:00, 20:00, 22:00

Asteburuak eta jaiegunak: 6:35, 7:15, 8:15, 10:15, 10:55, 12:15, 12:55 (2), 14:15, 16:15, 16:55, 18:15, 16:55, 18:15, 19:15, 21:15

Enpresa: EuskoTren

Oharrak: 1: Aizarnazabaldik pasatzen da; 2: Larunbatetan Aizarnazabaldik pasatzen da

ZARAUTZ-ZESTOA-AZPEITIA

Astegunak: 7:15, 9:00, 11:15, 14:00, 16:00, 18:45

Asteburuak eta jaiegunak: 16:30, 19:00, 21:00

Enpresa: EuskoTren

ZUMARRAGA (hospitala)-AZPEITIA

Astegunak: 7:35, 9:30, 11:30, 13:30, 14:30, 15:30, 17:30, 19:30, 20:30

Asteburuak eta jaiegunak: 8:45, 9:45, 11:45, 13:45, 15:45, 17:45, 19:45, 20:45

Enpresa: EuskoTren

TOLOSA-ERREZIL-AZPEITIA

Astegunak: 9:30, 18:30

Asteburuak eta jaiegunak: 9:30, 12:00

Enpresa: EuskoTren

Azpeitiko merkatu txikiye

1. ETXEBIZITZAK

- 1.1. Saldu
- 1.2. Erosi
- 1.3. Errentan eman
- 1.4. Errentan hartu
- 1.5. Etxeak osatu
- 1.6. Bestelakoak

2. LOKALAK

- 2.1. Saldu

2.2. Erosi

- 2.3. Errentan eman
- 2.4. Errentan hartu
- 2.5. Bestelakoak

3. GARAJEAK

- 3.1. Saldu
- 3.2. Erosi
- 3.3. Errentan eman
- 3.4. Errentan hartu

4. LANA

- 4.1. Eskaintza
- 4.2. Eskaera
- 4.3. Bestelakoak

5. MOTORRA

- 5.1. Saldu
- 5.2. Erosi
- 5.3. Errentan
- 5.4. Bestelakoak

6. BIDAIK

- 6.1. Europa
- 6.2. Mundua

7. DENETARIK

- 7.1. Saldu
- 7.2. Erosi
- 7.3. Errentan eman
- 7.4. Errentan hartu
- 7.5. Bestelakoak

deitu

15 03 58

e-maila:

uztarria@topagunea.com

• Partikularren iragarkiak doan dira. Gainerakoek, Ieroko euro bat ordaindu beharko dute.

• Uztarriak ez du iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

• Aldaketak adierazi Uztarriari.

1. ETXEBIZITZAK

1.1. SALDU

• **Jose Artetxe.** 12. zenbakian lehen pisua. Telefonoa: 943 - 15 07 51.

• **Eliz kalea.** 19. zenbakian. Hirugarren pisua. Telefonoa: 617 74 67 84.

2. LOKALAK

2.1. SALDU

• **Plaza Nagusia.** Arkupelan. Telefonoa: 943 - 46 29 31.

2.3. ERRENTAN EMAN

• **Landeta.** Asepeyoren ondoan. Telefonoa: 943 - 81 17 59.

3. GARAJEAK

3.1. SALDU

• **Garmendi.** Telefonoa: 943 - 81 30 19.

4. LANA

4.1. ESKAINTZA

• **Etxeko lanak eta haurra zaindu.** Neska euskalduna haur

• Etxebizitza salgai.

Enparan kalean, 20. zenbakian. Lehenengo solairua. Informazio gehiagorako telefono zenbakiak: 943 - 81 67 77 edota 943 - 81 68 12.

• Autoa salgai.

Ford Scort. SS-AM matrikuladuna. Txuria. Telefono zenbakia: 620 84 22 44.

• Autoa salgai.

Opel Astra GSI. M-NB matrikuladuna. Telefono zenbakia: 647 59 00 45.

bat zaindu eta etxeko lanak egiteko. Telefonoa: 943 - 07 10.

4.2. ESKAERA

• **Umeak eta adinekoak zaintzeko.** Emakume bat eskaintzen da haurrak eta adineko pertsonak zaintzeko. Telefonoa: 678 07 52 30.

5. MOTORRA

5.1. SALDU

• **Furgoneta.** Vostswagen Transporter. Hamar urte ditu eta kanpinerrako prestatuta dago. Egoera onean. Telefonoa: 610 68 53 44.

7. DENETARIK

7.5. BESTELAKOAK

• **Haurrei laguntza.** Psikopedagogian lizentziatua haurrei laguntzeko prest azaltzen da. Telefonoa: 943 - 81 21 92.

• **Ingelerako klaseak.** Maila guztiak. Talde txikiak. Telefonoa: 943 - 15 01 93.

• **Klase partikularrak.** Alor guztiak. Telefonoa: 657 77 74 24.



Langai

Euskal Lan Zerbitzua

Lan eskaintza bat interesatzen bazaizu, erreferentzia hartu eta eskatu informazioa zentro laguntzaile hauetan:

SERBILAN 943- 15 70 66

IRAURGI LANTZEN 943 - 85 11 10

• Obra zibileko kapataza.

Hirugarren Antzeko lanetan lau urteko esperientzia izatea eskatzen da. Euskaraz jakitea baloratuko da. 93665/5 erreferentzia zenbakia.

• **Kamioi gidaria.** Donostian. 32 urte baino gutxiago izatea eskatzen da eta antzeko lanetan urtebeteko esperientzia izatea. C1 gidatzeko baimena izatea eskatzen da. 90472/4 erreferentzia zenbakia.

• Soldadorea.

Azkoitian. Hirugarren mailako ofiziala. 40 urte baino gutxiago eta B1 gidatzeko baimena izatea eskatzen da. Lanbide Heziketa II edota maestria industrialak ikasketak eginda izatea eskatzen da. 93906/2 erreferentzia zenbakia.

• **Elektrizistak.** Lau lanpostu. Lehen mailako ofiziala. 25-45 urte artekoa izatea eta bi urteko esperientzia eskatzen da. 91994/3 erreferentzia zenbakia.

PILDAIN
inmobiliaria

Elizkale, 22 • Tf. 943-812167 • pildain@jct.es

bitxidenda



Plaza txiki, 7 - Telf. 943 81 23 67

LUBA

- AHOLKULARITZA FISKALA,
LABORALA, KONTABLEA
- ASEGURUOK
- FINKEN ADMINISTRAZIOA

Enparan kalea, 30

Tel.: 943 15 75 25 Fax.: 943 15 72 75
e-mail: luba.ase@euskalnet.net

ZALDIKO



SALBE 15 943-151275
ESTETIKA ETA OPARIK

domusa






argazkilaye: Iñaki Uranga

Danborradaren beste aldea

● **IÑAKI URANGA.** 25 urte ditu eta 1998an hasi zen argazki munduan. Azpeitiko Argazki Elkarte-kidea da, eta *Egunkaria*-rekin ere kolaboratu izan du. Uztarriarako ere hainbat argazki atera izan ditu.

● **GAIA: HELDUEN DANBORRADA.** Sanebastian bezperako danborradarako prestaketak arratsaldean hasten dira, eta goizeko ordu txikiak arte horixe izaten da herriko ekimen nagusia. Argazki hauek iaz ateratakoak dira.





1. 16:35.

Danborradako kantinerak ileapaindegian dotore jar-tzen. Arratsaldean, garaiz, hasten dira helduen danbo-rradako prestaketa lanak.

2. 19:45.

Gure Ametsa elkartean afa-ria prestatzen. Danborra-dan irten aurretik indarrak hartu behar.

3. 21:15.

Irrintzi elkartean, afaria amaitzeaz. Danborradara-ko prestaketak hasi aurre-tik.

4. 21:50.


Irrintzi elkartean, taldeko lagun batzuk danborrada-rako sukaldari jantzia jaz-ten.

5. 23:00.

Danborradaren unea bera. Talde guztiak Soreasuko parrokiaren atarian bildu-ta pieza batzuk jotzen.

6. 23:30.

Etxe Zuri tabernan, danbo-rradaren geldialditxoan trago bat hartzen.





7



8



9

7. 23:50.

Danborradako taldeak Enparantza Nagusira iristen eta bakoitzari dagokion lekua hartzen.

8. 00:00.

Helduen danborradako talde guztiak plazan bildu eta Udal Musika Bandaren gidaritzapean jotzen dituzte danborradako doinuak.

9. 00:40.

Sansebastian bezperako danborrada amaitu eta berriro elkartera bueltan. Elkartearen atarian bandera jarri ondoren



UZTARRIA, IRITZIEN GUNEA

URTE BERRIA.

Urte barri,
txarri belarri,
deukonak
ezteukonari,
nik ezteukot
eta neri.

zenbat jende hurbiltzen den jakiteko. Aldizkarian jendearen partaidetza nabarmendu egiten da eta webgunean berriz, sartzan naizen bakoitzean —eta hau ia egunero egiten dut— edozein gairen inguruko iritzi desberdinekin topo egiten dut, kaleko jendeak emandako iritziekin. Honek, harritu egiten nau, harridura atsegina sortzen dit. Hor bueltaka batzuren batzuk badabiltzala seinale da, modu batekoak edo besteakoak, gustukoak edo ez, baina hor. Gaur egun, iritziak eman eta besteenak irakurtzeko gune bat izatea ezinbestekoa da Azpeitia bezalako herri batean. Eta orain, aukera eskaintzen zaigunean, bizkarra emateko moduan al gaude? Zertan hobetu badagoenez, helburu horiei heltzea hobe.

Uztarrria herri aldizkaria, kolektibo baten esnatzearen emaitza badela dirudi. Nik ez dut dudarik egiten eta gaitasuna badagoela ikusita, ekar ditzala urte berriak esnatze eta jaiotze berri oparoak!

Baneukan gogoia urte berriari sartzeko! Baneukien egun batetik besterako jauziarekin ez zela ezer berezirik jazoko, baina kitto, zaharra atzean uztearen sentipena izatearekin konformatzen naiz. Geldoa, makal eta aspergarria izan den urte batetik, emozioz betetako batera salto egitea nahiko nuke, esnatze pertsonal eta kolektibo batera.

Hau guztia kontuan izanda, aldizkari honi buruzko iruzkin bat eginez hasi nahiko nuke nire aurtengo lehen idatzia.

Uztarrriaren azken aleetan, diru laguntzak direla eta, udalarekin izandako buruhausteen berri izan dugu. Alegia, eskatutako diru laguntzei baiezkota eman zitzaizela hasieran. Gero, agindutakoa ezetz eta azkenean, baietz. Hau, horrela, oso modu arinean esanda. Gehiago jakin nahi duenak, honi buruzko informazioa topatuko du aurreko aleetan, baita uztarrria.com webgunean ere.

Azken honetan, laguntzak direla eta, hainbat pertsonen iritziak irakurri ahal izan ditut eta inoiz neurea ematera tentatua egon banaiz ere, eztabaidetan sartzeko gero eta gogo gutxiago daukadanez, behin eta bakarria emateko aukera izanik, hilero-hilero Uztarrria azpeitiarren etxeetara heltzea ahalbidetzen dutenei, nire zorionik beroena eman nahi nieke.

Udalaren portaera, gutako askori ulertezina askotan egiten zaigu, hainbat arlotan noski. Kulturari dagokionez ere, bene-benetan jorrazten hasten direnean, herri mugimenduari jarraikiz, ekintzak beste-lakoak izaten hasiko dira, eta ekintzetatik jasoko dira emaitzak.

Uztarrria herri aldizkari eta web orriari lau sos emateko, eztabaida handiak sortu behar badira, *apaga y vamos!*

Batzuren ahaleginari esker, Azpeitia eta azpeitiarren berri izatea gustuko dugunok, asko garelako ja-kinda, ia-ia musutruk eskaintzen digutenari ere oztopoak jarri behar badizkiogu, ez daukagu benetan zertan denbora pasatu!

Askok dira laguntzak jaso beharrean dauden taldeak eta hori ez dugu ahaztu behar baina horrek ez du esan nahi, nire uste apalean behintzat, Uztarrriaren kasuan, konparaketetara eraman behar gaituenik, nahi izanez gero, denentzako iritsiko litzatekeelako.

Lanaren emaitza begibistakoa da eta eztabaida alferrek ez gaituzte inora eramango.

Ez naiz kalean inkesta egiten aritu ea Uztarrriara



As.	At.	Az.	Os.	Os.	La.	Ig.
		1	2	3	4	5
6	7	8	9	10	11	12
13	14	15	16	17	18	19
20	21	22	23	24	25	26
27	28	29	30	31		

URTARRILAK 4 (larunbata)

● FUTBOLA.

Hirugarren Maila: Lagun Onak-Portugalete. 17:00-etan. Garmendipen.

URTARRILAK 12 (igandea)

● MENDIA.

Zumaia-Zarautz goiz irteera. Lagun Onak M. B.k antolatuta. Irteera plazatik 09:00etan.

URTARRILAK 13 (astelehena)

● ARGAZKILARITZA.

Javier Gorostidiren argazki erakusketa. Urtarrilaren 31a arte irekita izango da. Ordutegia: 18:00etatik 20:00etara astelehenetik ostiralera. Antxieta Etxean.

URTARRILAK 15 (asteazkena)

● HITZALDIA.

Paula Casares, Kontseilua-ren Behatokiko arduraduna. Behatokiarene esperientziarik ariko da. Azpeitiko Baite Eus-kara Elkarteak antolatuta. 20:00etan. Aitonenan.

URTARRILAK 19 (igandea)

● DANBORRADA.

urtarrilak 25 (larunbata) • Eski eta Mendi Irteera



MAJE LARRAÑAGA

FORMIGALERA. Lagun Onak Mendi Bazkunak bi egunetarako (urtarrilaren 25 eta 26rako) eski eta mendi irteera antolatuko du. Formigalera izango da irteera. Aurrez izena eman behar da joan nahi bada. Izena emateko Lagun Onak Mendi Bazkunaren tabernara gerturatu behar da. Bertako telefona 943 81 20 25 da (astelehenetan 21:00etatik aurrera).

Sansebastianak: Herriko kaleetan helduen danborrada egingo da, Udal Bandaren laguntzarekin. 22:15ean.

URTARRILAK 20 (astelehena)

● TXISTULARIAK ETA DANBORRADA.

Sansebastianak: herriko kaleetan zehar, Izarraitz Txistu-

lari Taldearen eta Udal Musika Bandaren goiz eresia. Ardozaleak eta Gure Ametsa taldeen kalejira. 09:30ean.

● PROZESIOA.

Sansebastianak: herriko agentariak korporazioan Meza Nagusira abiatuko dira udaletxetik Parrokia. Herriko kaleetan prozesioa izango da. 10:30ean hasita.

liburue

Nerea Uranga



● **EGILEA:** Fernando Morillo Grande ● **ARGITALETXEA:** Aizkorri ● **IZENBURUA:** 'Izar-malkoak' ● **GENEROA:** Eleberria ● **ORRIALDEAK:** 120 ● **SALNEURRIA:** 6,25 euro

GAZTEEI ZUZENDUTA 'IZAR-MALCOAK'

Fernando Morillo azpeitiarraren *Izar-malkoak* liburu berria honela hasten da: "Argi-metraila haren azpian hasi zen gutzia. Gogoratzen? Seguru baietz".

Gazte literaturako eleberria da Fernando Morillok azkena idatzi duen liburu hau. Beñat, 16 urteko gazte informatikazaleak biziko duen esperientzia berria kontatzen da: izugarri erakartzen duen neska batekin ateratzekoa. Beñati bi neska ibiliko zaizkio inguruan: bata jatorra eta beste misterioitsuagoa eta erakargarriagoa zaiona. Eta Beñaten ahotik maitasun eta sexuaren gorabeherak kontatzen zaizkigu.



AIZPURU

AUTOAK

PEUGEOT

Landeta Auzoa - Urrut.: 943 81 23 59
Faxa: 943 81 22 81 - 20730 AZPEITIA



Otamendi
Bixi Denda

Goiko - Kale, 4 - Tfnoa. 81 13 49

Amenabar
DENDA

gortinak, ohazalak,
edredoi nordikoak ...

Eliz-kale, 32-behea - Telf/Fax: 943 15 06 97



AMAIÁ TABERNA

Pintxo bereziak eta giro jatorra




Tel, 943 150472 ♦ Erdi kale, 13

'Abentura korporala' gorputza eta burua lantzeko saio berria

● **EKITALDIA:** *Abentura korporala* ikastaroa ● **EGUNAK:** Urtarrilean hasiko da (astean behin) ● **IZEN-EMATEA:** Urtarrilaren 8a arte ● **IZENA EMATEKO:** 943 15 71 92 telefonoa ● **ANTOLATZAILEA:** Udaleko Gizartekintza Saila ● **IKASTAROAREN LEKUA:** Aitonena.

Ireia Uranga / Azpeitiko Udaleko Gizartekintza Sailak, ikastaro berri bat jarriko du martxan urtarrilean, *Abentura korporala* ikastaroa hain zuzen ere. Ikastaro honetan, oreka mental eta emozional handiagoa lortzeko eta estresari aurre egiteko teknikak erakutsiko ditu Pepa Bojo, psikologoak. "Zenbait teknika erabiliz —*Pranayama, Katsuguen, Taichi, Yuki*, akupresioa, irudikatzea, masajea, psikomotrizitateko teknikak eta abar— saneatu gaitzke, gure gorputzaren energia gehiagotu edota orekatu dezakegu. Gure osasun mentala, korporala eta barrunbekoa hobetu dezakegu", diote antolatzaileek.

Abentura korporala tailerrean egingo den lanarekin bakoitzaren gorputza sentitzen, arnasa hartzen eta lasaitzen erakutsiko da. "Hobeto sentitzeko eta ongizate pertsonal, mental eta fisikoa lortzeko helburuarekin". Tailerra praktikoa izango da eta metodologia aktiboa erabiliko da bertan. Teknika desberdinak landuko dira, azalpen teoriko eta talde-dinamika bidez. Ikastaroak hamabi saio izango ditu eta bertan parte hartzeko urtarrilaren 8a arte izena emateko aukera izango da, 943 157192 telefono zenbakian.



● SOKAMUTURRA.

Sansebastianak: plazan zezena izango da. 12:00etan.

● DANBORRADA.

Sansebastianak: Aranetik haurren danborradako taldeak aterako dira, karroza eta guzti. 12:30ean hasiko da.

● SOKAMUTURRA.

Sansebastianak: herriko kaletan zezena ibiliko da. 16:30etik 20:00ak arte.

● DANBORRADA.

Sansebastianak: herriko bandera jaistea. 24:00etan.

URTARRILAK 25 (larunbata)

● FUTBOLA.

Hirugarren Maila: Lagun Onak- San Pedro. 17:00etan. Garmendipen.

● SASKIBALOA.

Lehen Maila: Jostaldi Kirolak-

C.B. La Peña (Bilbo). 18:30-ean. Kiroldegian.

OTSAILAK 1 (larunbata)

● FUTBOLA.

Hirugarren Maila: Lagun Onak-San Ignacio. 17:00-etan. Garmendipen.

● TXONTXONGILOAK.

Bakartxoren Zapatilak txontxongilo emanaldia Joseba

Ramirez-en eskutik. 12 urte arteko gaztetxoentzako emanaldia da. Baitek antolatuta. 17:00etan. Soreasun.

Zeun ekitaldiak-eta Uztarriara helarazteko aukerak:

- Julian Elorza Hiribidea 4, 2.a ezkerria (Azpeitia)
- 943 - 15 03 58 telefonoa / faxa
- uztarria@topagunea.com

KIRURI

JATETXEA

Loiola hiribidea, 24

LOIOLA - AZPEITIA

Tlfnoa.: 943 81 56 08

Faxa.: 943 15 03 62

SONS - MARGAR

estetikako azken teknikak

Enparan, 15-1
Tel. 813898

COEG

HORTZ KLINIKA

Antonio Rafaniello

- Odontologi orokorra
- Odontologi estetiko
- Aho zirujia
- Ezarpen osoak
- Protesi mugikorraren aldatzea
- Pieza gabekoa pieza finkora aldatzea

Enparan 8 - 1 Tel.: 81 67 36

AMALUP

lorazaintza

- * Lorategien proiektuak
- * Zuhaisken kimaketa
- * Lorategi eta zelaien mantenua
- * Belar landaketa eta tepe egur, harri edo txilar jartzea

943-025319 (Azkoitia)
679106753 (mugikorra)

“Dena herritarren ekimenez egiten den”

Arrasaten ikixten du Aitzolek, eta irakasle baten bidez eman zuen Bilbon izena bolondres Galizire juteko. Geru Mondragon Unibertsitiek antolatu zuen autobuse Galizireko, baina deitu zuteneako ez zegoen lekuik. Corme herriyen izen zan Santo Tomasetako astebukaeran *txapapotie* jasotzen.

● Zenbat lagun jun zeate?

Zortzi lagun jun gaitun Arrasatetik, baino Bilbotiken bi autobus gintunan, ehun lagun.

● Ze harrera egin zaizue Galiziyen?

Oso ona herrikuen aldeetik. Baina Xuntakoek tokik ez zegoela eta laguntzaik ez zigunan eman, ez juteko ere esan zigutenan. Herrikuek berriz, juteko, jendie behar zala eta moldatuko zirela gu hartzeko.

● Nola moldatu zineten?

Lenuotik beste 350 bolondres zeudenan, kiroldegien lotan. Gu eskola bateko gimnasiyuen eon gaitun.

● Material eta antolamendu aldetik nola?

Gu ondo, geuk eman genizkinenan gauze danak, baino beste 350 hoiak etzinenan ezer eman, eta gure gauzek ko-fradiyen zeudenez goizien azkar jaiki behar hauek guriek hartu baino lenuo.

● Eta bestiek zerrekini ibili hituan ba?

Herrikuek bazakenabenan materiala, eta azkenien moldatu gintunan. Dana

herritarren ekimenez egiten den: andrak sukaldien geldiure egin gabe, garbitzen ere bai batzuk, kotxe partikularrakin atzea ta aurea bolondresakin... Xuntak eta udalak ezer ez. Jatekue eta dana herritarrek ordaintzen dinabe. Guk diruere laga ginenan. Hala ere bazeuden herritar batzuk ezer egiten eztebenak, gu *txapapotie* jasotzen eta hayek jayetako erropak jantzi eta pasiran guri beire.

● Manifa bat ere egin zenuten, ala?

Bai, *NUNCA MAI* Sek antolaute, eta han herri osue *O do bigote, que recoja el chapapote* esanez, baina batzuk tabernan eta balkoitik beire...

● Ze inpresiyo garbitzea jundekuen?

Itxure batea ez hunan zikin handik ikusten. Baino gero baldiek eta baldiek ateratzen hitunan. Haitzetako eta potzuetako zikine kendu, mareak lagatakue, eta marea altxautekuen berriz zikintze hunan. Frustrantie den!

● Eta aldeiteakuen zer?

Goizuo aldegin ginenan,

eta lan katie moztu hunan, 100 gutxiyo. Lanien ari zienak *'no os vayas'* eginez eta bestiek eskertzen, bueltatzeko eginez... egundoko palue hunan aldeitie.

● Hemen e jarri dititiabe barrerak-eta?

Harea jun gaitun eta, hemen beharko jun geurie garbitzea ailegatzen bada.

Leire Larrañaga




TXIKITEKO AMETSA. “Izengo ninenan ametsen bat, baino ez naun akordatzen. Baino *txapapotie* jasotzie seguru ez zela”




www.lasao.com

943 - 151182



irten, ibili, jolastu...
... egin kirola!



Santi Lazkano Kirola

José Artetxe, 1

Tel/Fax: 943 81 16 50

Sare@informatika

Telekomunikazio Zerbitzuak & Informatika



Eskaintzen ditugun zerbitzuak eta produktuak

Ordenagailuen eta portatilen salmenta



Markako PC-ak

Gure markako PC-ak

Portatilak

Informatika zerbitzu teknikoa



Zerbitzu Tekniko azkarra

Mantenu Kontratuak

Periferikoen salmenta eta konponketak



Multifuntzioak

Formatu handiko inprimagailuak

Laserrak

Sare informatikoen instalazio eta kudeaketa



Sareen diseinua eta muntaiak

Sareen mantenua

Serbitzariak

Kontabilitate kudeatze programen ezartzea



Kudeaketa programak

Kontabilitate

Nominak

WEB orrien diseinua eta mantenua



2002
Corporate

2001
Tienda

2001
Escapate

Erregistratzaile, balantza eta TPVen salmenta



Informatika aholkularitza



Enpresetarako Telefoniako
zerbitzu guztiak



Azpeltia
 Pablo VI 19 behea
 943 157 321

Azkoitia
 Julio Urkixo 10 behea
 Telf: 943 85 36 60

Zarautz
 Kale Nagusia 1 Be
 Telf: 94313338

Banatzaile Ofiziala
Euskaltel